


BETERRIKO ALDIZKARIA

AIURRI

1995ko martxoa. 11. zenbakia. Doan banatzen da

HERRI TXIKIAK...
...HERRI BIZIAK!
MUSKIL



*Foto
Echarri*



•ORDUBETEAN ERREBELATUA •ARGAZKI ESTUDIOA •LEHEN JAUNARTZEAK
•EZKONTZA ERREPORTAIK •MARKOZTAKETA •ANPLIAZIOAK BEREZIKI

Elizondo Plaza, 2 atzealdea - ☎ 59 41 48 - ANDOAIN

Juan de Urbieto, 8 - ☎ 55 29 39 - HERNANI Kale Nagusia, 17 - ☎ 36 14 84 - LASARTE



BEIBATEGI




J A T E T X E A

Bulandegi bidea z/g ☎ 69 21 78 ZIZURKIL



- Eguneroko menua edo kartara
- Jaunartzeak
- Bataioak


Berezitasuna
Entsalada epela



ALFARO

TABERNA - JATETXEA

ETXEBERRIETA. ANDOAIN ☎ 59 40 27



- Eguneroko menua
- Bataioak
- Jaunartzeak
- Ezkontzak
- Zure kutxixiko bazkari edo afariak
- Urtebetetzeko meriendak

2. **INKESTA:** Eta zuk, ba al dakizu tenporak zer diren?

4. **BERRIAK LABUR**

7. **ZIKULU SALTSA:** EHE: "Andoingo Alkatea euskalduna, noski!"

10. **HERRIZ HERRI**

19. **ERREPORTAIA:** Herri txikiak, herri biziak.

22. **ELKARRIZKETA:** Adimen urrituen etxea Zizurkilen.

24. **BASERRIAN:** Baserriko emakumearen onspena helburu.

26. **KULTURA:** Korrika jendetsua izan da bederatzigarrena.

28. **KIROLA:** Maria Luisa Irizar korrikalaria.

30. **ZAHARRAK BERRI:** Andoain: Kasinoa izan zen Trianon zaharra.

31. **ENPRESA:** Andoain: Inquitex, fibra sintetiko ekoizle.

32. **BEGI ARGIA:** Josu Landa: "Zinegotzi izan nahi al duzu?"

33. **HEMEROTEKA**

34. **HOTS, HOTS!! SUKALDE TXOKOAN**

35. **MERKATU TXIKIA**

36. **ZURE HIZPIDEA**

37. **AIURRITARRAK:** "Matxismoa=Feminismoa?". Arantxa Zabala.

39. **AGENDA**

40. **PASADIZUAK**



1



OHARRA: Bazkun argitaratzaileak ez du beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko inolako erantzukizunik.

Argitaratzailea: Manuel Larramendi Kultur Bazkuna. **Egoitza orokorra:** Dr. Huizi kalea 15, 1-esk. 20140 ANDOAIN (Gipuzkoa) ☎ 30 07 32 Fax: 30 07 31 **Babesleak:** Aduna, Andoain, Asteasu, Billabona, Larraul eta Zizurkilgo Udalak. **Zuzendaria:** Antxiñe Mendizabal. **Maketatzailea:** Iñaki Garmendia. **Erredakzio Batzardea:** Eloi Egibar, Jone Larrañaga, Mikel Maiz, Jon Unanue. **Erredakzioa:** Maider Barandiaran, Txomin Etxeberria, Agosti Garmendia, Amagoia Mujika, Ainhoa Oiartzabal. **Laguntzaileak:** Joxe Eizmendi. **Argazkiak:** Manu Mujika. **Komikia:** Beñat Azurmendi. **Publizitate arduraduna:** Mailu Ibarbia. **Banaketa arduraduna:** Iñosken Mujika. **Administratzaile-eragilea:** Kepa Sarasola. **Inprimategia:** SORTU s. coop. **Filmaketa:** VideoCys, Donostia. **Lege-gordailua:** SS-202/94 **ISSN:** 1134-0614 **Tirada:** 3.500 ale.

Eta zuk, ba al dakizu

“Calendario Zaragozanok” dioenez hilaren 8, 10 eta 11an izan ziren udaberriko tenporak. Udakoak ekainean izango dira, irailean udazkenekoak eta abenduan negukoak. Hiru egunekoak izan ohi dira beti: asteazkena, ostirala eta larunbatean, gauerdian hain juxtu. Une horretan egiten duen eguraldiak baldintzatzen omen du ondorengo hiru hilabetetakoak: haizeak nondik jo, handik joko omen du aurrerantzean, eta euria ari

badu berriz, zaparrada franko handik aurrera. Gure artean, eta jaso ditugun erantzunen arabera, gazteenek tenporak zer diren, orokorrean, ez dakite. Pertsona edadetu eta baserritarrengandik berriz, erantzun zehatzak jaso ditugu. Oraindik ere gehienek tenporek esaten dutenari jaramon egiten badiote ere, satellite bitartez aurrikusitako egunkari eta telebistako iragarpenak ez dituzte baztertzen.




Josefa Sagastibeltza. Ileapaintzailea. Andoain.

Urtean lau aldiz izaten dira: martxoaren azken aldera, ekainean, irailean San Migeletan eta Eguberrietan. Nik badaukat tenporetan fedea. Telebistatan esaten dutenari ere jarraitzen diot, askotan asmatzen dute. Asko eta asko ari da klima aldatzen. Lehen Erregeetan izugarri-zko izotzak eta elurrak botatzen zituen, eta orain...




Pello Sarasua. Udaltzaina. Zizurkil.

Eguraldiaren gorabeherak aurrikusten dituzte tenporek, ezta? Horretan fede pixka bat badaukat. Telebistak eguraldiari buruz esaten duenari ere jarraitzen diot. Batzuetan asmatzen dute, beste batzuetan ez. Klima aldatzen ari den ez dakit, horretaz ez nizuke ezer esango.



Lorenzo Azeña. Jubilatua. Andoain

Ez, ez dakit zer diren. (Gutxi-gora behera azaldu diogu tenporak zer diren). Nik eguraldiaren aurrikuspena telebistaren bitartez ezagutzen dut. Bestalde, zalantzarik gabe, klima aldatzen ari da: orain eguraldia askoz ere hobea da, udan eguzkiak gutxiago jotzen du, eta neguak berriz, epelagoak dira. Ez dakit zergatik, baina hogeitau urte neuzkanean eguzkiak gehiago jotzen zuen.



**KARROZERIAK
LAGUNAK^S**

TXAPA ETA PINTURA
EGA ZERBITZU OFIZIALA
FURGOI ISOTERMIAKOAK
HOZKAILUAK

SORABILA AUZOA - 53. POLIGONOA - ☎ 59 44 48 - ANDOAIN



Labesaitin
okindegia

**ETXekoentzat
APARTEKO
OGIA!!**

Kale Nagusia, 19 - ☎ 69 17 11 - BILLABONA

tenporak zer diren?



Gabriel Zabaleta.
Jubilatua.
Aduna.

Nik ez daukat federik. Batzuek esaten dute tenporetan eguraldi ona eginez gero, hiru hilabetetan eguraldi ona izango dela, eta txarra egiten badu berriz, txarra. Jendea esperantza horrekin bizi da baina... Eguraldiaren prebisioa zein den ezagutzea gustatzen zait, orain, gainera, satellite bitartez, oso ongi antzematen zaio. Horretan fedea badut. Beharbada, klima aldatzen ari da, ni gazte nintzenean elur gehiago egiten zuen. Ozono geruza dela eta...



Joxepi Leunda.
Baserritarra.
Asteasu.

Tenporak? Ilargiaren gorabeherak izaten dira, ezta? Gau horretan euria gelditzen bada, hiru hilabetez euria egingo du, eta haizea gelditzen bada, haizea izango da. Nik badut horretan fede pixka bat. Telebistan esaten dutenari ere sinesten diot. Goizean irratian egingo duen eguraldiaren zain egoten naiz egun osoan. Orain lehen baino eguraldi hobegoak egiten ditu, euri gutxiago, elur gutxiago. Elur eta izotz ikaragarriak egiten zituen orduan.



Maite Saiz.
Saltzailea.
Billabona.

Ez, ez dakit zer diren. (Eguraldiren aurrikuspena egiteko tradizioz erabili izan den sistema dela azaldu diogu). Telebistari egiten diot nik kasu, biharamuncan ze eguraldi egingo duen jakiteko. Dena den, telebista asko ez dut ikusten, jaietan bakarrik, eta egunkaririk ez dut irakurtzen. Ez dakit klima aldatzen ari den, baina nik uste dut umea nintzenean eguraldi hobea egiten zuela.

Egunkaria ren aldeko


ANTIGUAK

APIRILAK



goizeko 11etan

HERRIKOIA



ANTOLATZAILE



Berriak

Zizurkil

Iriarte Etxeko txoko berria




Aurrerantzean Zizurkil goiko hurrek eskolaz kanpo jolasean aritzeko, ikasteko, irakurtzeko edota beste edozer gauzetarako euren txokoa izango dute Iriarte Etxeko atikoan. San Millan eskolako gurasoak eta irakasleak aspaldi konturatu ziren haurrak eskolatik irten eta gero zuzenean etxera edota baserrira joan behar izaten zutela, eta ezin zutela elkarrekin jolasean edota ikastean jarraitu, horretarako leku aproposik ez zutelako. Bestalde, egia da Muskil elkarteren laguntzari esker zenbait ekintza egiten dituztela, baina, ziur aski, ez beraiek nahi bezain beste.

Iriarte Etxea egokitu zutenetik gazteenei euren txokoa egokitzea izan da Udala eta gurasoen asmoa. Hasteko jostailuak eta ipuinak izango dituzte bertan, eta nahi dutena egin ahal izango dute bertan: jolastu, musika entzun, kartetan aritu, etxeko lanak egin... Ez dute begirale edo dinamizatzaile berezirik izango, txokoa edota ludoteka gurasoen eratzukizunpean egongo da, eta beraiek arduratuko dira haurrak eta lokala zaintzeaz. Ordutegi jakin bat ere izango da: arratsaldeko bostetatik zazpiak arte. Dena den, guraso eta haurren nahira egokituko da. Zein egunetan ireki eta noiz itxi ere euren esku egongo da. Aurrerago beheko Kultur Etxean egiten den bezala hainbat ekintza antolatuko direla aurreratu digute.

Billabona-Zizurkil

Behin-betiko zubia



Kendu dute urtebetez Oria ibaia zeharkatuz Zizurkil eta Billabona batu dituen behin-behineko zubia, eta bi Udalak ados jarri eta Diputazioak oniritzia eman ondoren behin-betiko zubia jarriko dute. Urtebete luzea behar izan da bi Udalak zubiari buruzko erabakiren bat hartzeko, izan ere ezer erabaki aurretik Zubimusu zubiaren auziari lehentasuna eman eta konponduta utzi nahi zuten.

"Altuna y Uria" etxea izango da lanaz arduratuko dena eta Diputazioak dirua eman zain dago lanari ekiteko. Orain arteko zubiaren alokairuaren ordaina Diputazioak hartu du bere gain. Hileko 900.000 pezeta ordaintzen aritu da. Zubi berriaren kostoa ez da hamar milioi baino handiagoa izango.

Zizurkil

Goenkalekoak Zizurkilen

Orain dela gutxi izan dira Goenkaleko "Iker", "Xabier", "Mertxe" eta "Sara" Zizurkilgo Kultur Etxean jakinminez betetarik agertu ziren herriko gazteen galderei erantzunez. Kostata Gazte Asanbladak antolatutako Gazte Astean eskainitako beste ekitaldietako bat izan da mahaingurua. Gainera, argazki zaharren erakusketa antolatu dute, baita "Philadelphia" filme ospetsua eskaini ere, eta kirolari buruzko diapositiba emanaldia. Haurren jokoein eman zioten Gazte Asteari amaiera.



Andoain

Bertso saioa Allurralden

Laurogei lagun bildu ziren San Jose egunean Allurralde kiroldegian Bertso Eskolak antolatutako bertso saioan. Andoni Egaña, Sebastian Lizaso, Jokin Sorozabal, Jon Maia, Aitor Mendiluze eta Maddalen Lujanbio aritu ziren bertsoan. Gaijartze lanak



eskolako Unai Zatarainek eta Arantxa Oizartabalek egin zituzten. Saiolak izan zituen bere gorabeherak, eta gaietan baten bat aipatzekotan bezperako Elena infantaren eta Mari-chelarren ezkontza aipatu behar da.

Bi urtez saiorik antolatu gabe egon da Bertso Eskola azkenengoe-tan Udalarekin, diru arazoak zirela eta, izan zituen eragozpenengatik.

Orain arte La Salleko aretoan eta frontoian egin izan dituzte saioak, eta urte haietako jende multzo handia ikusita, aurten kiroldegian egitea bururatu zaie. Dena den, antolatzaileen esanetan, herritarren harrera ez da beraiek uste bezain ona izan, eta hurrengo batean, beharbada, tokiz aldatuko dute berriro.

Joseba Elizegiren aldeko ekintzak

Hilabete honetan zehar Joseba Elizegiren aldeko batzordeak Errealak eta Athleticek arteko beteranoen futbol saioa Andoainen, Pasai Donibanen eta Orion hainbat kirol saio eta ikuskizun, eta pilota partiduak Tolosako Beotibar pilotalekuan antolatu ditu. Orain arte batzordea ari da gutxigora behera aurrikusitako dirua eskuratzen. Eta batzordearen azkenengo ekintza tonbola izango dela adierazi digute.

Gipuzkoa osoko ehun tabernetan banatu dituzte dagoeneko boletoak eta era horretan helburutzat jarri zuten 40 milioi inguru bilduko dituztela espero dute.

Beotibarren antolatzaileek uste baino jende gutxiago bildu zen. Hala ere, Donibane eta Orioko ikuskizunek oso harrera ona izan zuten. Eguraldiak ere lagundu zuen Donibanen nahiz Orion.



Asteasu

Meategien ikerketaren emaitzak

INGEMISA enpresako Inaki Garciak era guztietako xehetasunak eman zituen Maria Milagros eta Laurak-Bat meategiei buruz Kultur Etxean eskaini zuen hitzaldian.


Bi meategien deskribapena egin ondoren, bien artean inolako komunikabiderik ez dagoela argitu zuen adituak, eta era berean urteetan izan diren hondorapenen arazoia ez direla meategiak izan. Halaber, meategien egonkortasunaren inguruan asteasuarek izan ditzaketen kezkak argitu nahi izan zituen, gaur egun inguruetan arriskurik existitzen ez dela esanez. Izan ere, Elizmendi inguruko eraikuntzak lur sendoaren gainean eraikita baitaude.

1.910. urte inguruan ekin zitzion bi meategietan igeltsu ustiapenari. 1940ean ezarri ziren legea eta 1.969an era ofizialean itxi. Gaur egun Udalak meategiei zein erabilerara emango dien ez daki oraindik.

Martxoaren zortzia ospatzen

Asteasuko emakumeek Martxetandi sagardotegian ospatu zuten Emakumearen Eguna. Afari gozoa egin ondoren, antzerkia ikusi eta dantza sueltotan egin zuten bildutako hogeita hamar lagunek. Adin guztietako emakumeak bildu ziren, baita ama-alabak ere.

Zingira taldea osatzen duten bi emakumeek "Yo no soy esa" saioa eskaini zuten, etxekoandarearen bizitza ongi baino hobeto isladatu zuen antzerki saioa. Giro alaia eta umorea izan ziren nagusi Asteasuko emakumeek urtero egiten duten bilkuran. Jai amaieran "hurrengo urtera arte" esanez agurtu ziren bildutako guztiak. Dena den, hurrengo martxoaren zortzia baino lehen Santa Lutzi egunean emakumeak berriro bilduta ikusteko aukera izango dugu.



ZUK ERE ETXEAN NAHI DUZULA? EGIN ZAITEZ HARPIDE

BIDALI IGUZU IZEN-EMATEKO TXARTELA (Dr. Huizi kalea 15, 1-esk. 20140 ANDOAIN. Gipuzkoa) EDO DEI EGIGOZU **30 07 32** TELEFONO ZENBAKIRA

AIURRI ALDIZKARIA ETXEAN JASO NAHI DUT DOHAINIK

Izen-deiturak

Helbidea

Herria

EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ TALDEA:

“Andoaingo Alkatea: euskalduna, noski!”

Andoaingo Euskal Herrian Euskaraz taldeak maiatzako Udal hauteskundeetan herriak alkate euskalduna izan dezan kanpaina bat egiten ari da. Dagoeneko alderdi guztiek daukate kanpainaren berri, dena den, taldeak maiatza bitartean kalean egingo duen sinadura bilketaren emaitzak ezagutaraziko dizkie alderdi guztiei hausnartu eta

beraien ondorioak atera ditzaten. Taldekideek adierazi dutenez egitasmo honen bitartez ez dute alderdi baten edo bestearen alde egin nahi, baina argi utzi dute herriaren gehiengoaren borondatea alderdi abertzaleekin bat datorrela, eta horregatik uste dute Andoainen alkate euskalduna eskatzea zilegi dela.

- EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ TALDEA SINADURAK BILTZEN ARI DA
- “ALDERDI ABERTZALEAK DIRA GEHIENGO”
- ALDERDI GUZTIAK EZ DATOZ BAT EKIMENAREKIN

“Andoainen talde abertzaleek daukate indar gehien” esan digu Juani Lizaso EHEko partaideak, “baina gero euren arteko hitzarmenak direla medio, euskalduna ez den beste edozein jartzen dute, herriaren borondateari jaramonik egin gabe”. EHEren ustez talde politikoen euskararekiko konpromezu eza frogatzen ari dira gaur egun behin eta berriro, zenbaitetan euskararekiko kontrako jarrera ere azalduz. EHEk zehatz-mehatz definitu du alkate euskalduna: euskara normaltasunez erabiliko duena; administrazioa euskaraz funtzionatuko duela ziurtatuko duena; kaleko plaka, kartel, eta bide seinaleak euskaraz jarriko dituen; idatzi guztiak euskaraz izango direla ziurtatuko duena; laburbilduz, euskararen aldeko konpromezu serioa izango duen alkatea.

EHEren ustez Andoaingo Udaleko Gobernu Batzordeak, erabaki guztiak bere eskuetan egonda, euskararen ordenantza aurrera eramateko ez du borondaterik agertu.

Udalaren azterketa

1988. urtean euskararen erabilera arautzeko Udal Ordenantza onartu zen. Atal batean langileek izan behar zuten euskara maila jasotzen zen. Langileak euskalduntzeko lehenengo plangintza, abenduan amaitzen zena, uztaiera luzatu da eta Pello Iturrioz euskara teknikariak adierazi digunez lau langiletik hiruk, plangintzaren arabera derrigorrez betetzea dagokion euskara maila gaindituko du eta beste hainbatek, gehintsuena, maila polita eskuratuko dute. Dena den, lana

euskaraz egiteko orduan izaten dira arazoak, izan ere, politikariak dira lana sortzen dutenak eta hauek lana gazteleraz egiten badute langilea bera ere lana gazteleraz egitea behartuta dago, zeren eta ezinezkoa da, gaur eguneko giza baliapideekin egiten den guztia itzultzea, “aurpegi garbiketa baino ez”, bere esanetan, “bestalde”. Zehatzago esanez Alkatea eta Gobernu Batzordea dira lan administratibo gehiena sortzen dutenak eta beraz, “Udalaren barneko euskalduntzea benetakoa izan dadin, Alkate euskaldun, alfabetatua eta euskararen etorkizunaz kezkatuta dagoena izatea” deritzo egokien.

Pello Iturrioz ustez langilegoa euskalduntze bidean jarri ondoren bi dira oinarrizko zutabeak euskaraz lan egiten hasteko: Udaleko langileen beraien konpromezua eta ahalegina eta, batez ere, Alkatearen eta Gobernu Batzordearen jarrera eta erabakia, berauek finkatzen baitute, azken batean, hizkuntz politika eguneroko lanarekin. Horren ildotik, euskalduntze prozesuan pauso garrantzitsuak eman badira ere, nahikoak izan ez direlakoan dago, ez baita lana euskaraz egiteko erabakirik hartu. Eta horrek itzulpena garamatza derrigorrez, benetako aurrerapausorik egin gabe.

Adibidez, gero eta gehiago omen dira herritarrek euskaraz egiten dituzten era guztietako eskaerak. Ordenantzaren arabera, euskaraz tramitatu beharko lirateke, baina politiko erdaldunak izanik ezinezkoa denez, itzulpena hasieran eta itzulpena amaieran.

Zikulu saltsa

EHEN KANPAINA APROBETXATUZ UDAL HUTESKUNDEETAN ZERRENDABURU IZANGO DIREN HAUTAGAIENGANA JO DUGU IRAKURLEEI AURKEZTEAZ GAIN EGITASMOARI BURUZKO IRITZIA EZAGUTZERA EMAN DEZATEN.

HERRI BATASUNAK, EAJ-PNV - EUK ETA EZKER BATUAK ARTIKULU HAU EGITEKO GARAIAN, ARTEAN, BEREN ALKATEGAIK AUKERATU GABE ZEUZKATEN

“Berez ateratzen zaizkigu euskaldunak”



Maxen Zinkunegi eta Mikel Arregi: “Kanpainari ez diogu garrantzi handiegirik eman. Guri logikoa iruditzen zaigu herri euskaldun batean alkatea euskalduna izatea, baina kanpainan euskara instrumentalizatu egin dutela


iruditzen zaigu, eta hori kezagarria da. Guk zerrendak osatzean ez dugu horrelako baloraziorik egiten, pertsona aproposena bilatzen dugu, eta berez ateratzen zaizkigu hautagai euskaldunak.

Udalean euskararen egoerari dagokionez, Udalak berak onartutako ordenantzarik ez dela betetzen ari esan behar da. Euskaraz egiten dena baino gehiago egin zitekeen, horretarako alde batetik, Udalak medio gehiago jarri beharko lituzke, daudenak ere hobeto aprobetxatuz, eta bestetik, politikariok gehiago erabili beharko genuke. Baina hori guztia inongo dramatizaziorik gabe. Euskaldunak geranez, bizimodu normalean euskaraz egiten dugun bezala, egin beharko genuke Udalean. Dena den, euskaldunak dauden batzordeetan euskaraz egiten dugu, eta ziur aski, guztiok euskaldunak izango bagina euskaraz egingo genuke. Azken helburua bi hizkuntzak bata bestearen parean jartzea da, eta elebitasunean bizitzea.

Kalean orain dela urte batzuk baino gehiago entzuten da. Euskararen une larrienak iragan ditugu eta aurrerantzean euskara era naturalean erabiltzen badugu, aurrera egingo du. Gure programaren zirraborroan ordenantza betetzeari emango diogu lehen tasuna. Ondoren ordenantzari herriari begirako proiektioa eman behar zaio”.

Larramendi Bazkuna

Kanpainako oinarritzko eskakizuna egiteari zilegi eta bidezko deritzola adierazi du Bazkunako Zuzendaritza Batzordeak, eta alderdi politiko guztiei ondokoa



M. ARAMENDI

eskatzen die: lehenik, korporazio kide berriek lehenetsi dezatela alkatea hautatzean alkategai euskalduna eta (/edo) gai izango dena Udalak berak onarturik daukan euskararen erabilerraren normalkuntzaren aldeko politika behar bezala gauzatzeko, Andoaingo alkatea herritar guztion ordezkari izan dadin. Bigarrenik, beste horrenbeste egin dezatela Udala Korporazioa osatuko duten zinegotzietako dago kienez, Udala osatzen duten batzordeetako ordezkariak izendatzean. Eta hirugarrenik, bilaka eta bete dezala oso-osorik Udalak aurrerantzean euskal Udala Ordenantza.

“Zinegotzi edo alkate izateko ez da azterketarik eskatzen”

JOXE MARI ORMAZABAL LOINAZ (EA)
La Salle-Berrozpeko irakaslea
38 urte
1992. urtea gerostik zinegotzi
Independentea



eusko alkartasuna

“EHEn proposamena oso ona iruditzen zait. Derrigorrezkoa da Andoaingo Alkatea euskalduna izatea. Euskal Herrian gaude, eta EKEko hizkuntz ofizialak gaztelera nahiz euskara direnez, Alkateak biak jakin beharko lituzke. Administrazio publikoan lan egin nahi duen edonori eskatzen zaio hizkuntz eskakizuna; zinego-

tzi edo alkate izateko berriz, ez dago inongo azterketarik gairiditu beharrik. Gure zerrendan aurreneko postuetan guztiak dira euskaldunak. Euskaraz ez dakitenak ere badaude, baina euskara sentitu egiten dute.

Gure aldetik aurrerantzean ere euskararen alde berrian egiten diren ekintzak bultzatzen eta laguntzen jarraituko dugu, nahiz eta azken bolada bonetan Udala estu-estu ibili den diru arazoak direla eta.

Andoaingo Udala izan zen hizkuntz eskakizunen politika aurrera eramaten aitzindari. Hizkuntz eskakizunak egoki betetzen ari dira, eta orain arteko prozesua positibotzat joko nuke. Udala langileak baino gehiago, politikariok egiten dugu askotan huts. Bestalde, berrian euskararekiko kontzientzia areagotu egin dela iruditzen zait. Dena den, oraindik kalean euskara normalizatzeko urrun gaude. Herriak udaletxean dagoen euskara maila lortuko bala, ez legoke gaitzki”.

“Kanpaina desegokia eta antidemokratikoa da”

JOXEAN PÉREZ GABARAIN (PSE-EE)

Enpresa antolaketa teknikaria. 51 urte.

1979tik 1983ra Andoaingo Alkate (EE)

Egun Udal Kirol Patronatoko lehendakari ordea.

Euskara ulertzen du, hitz egiten ez duen arren.



“Alkate euskaldunari dagokionez, funtsezkoena alkate izateko gaitasunari dagokio, euskaradun izateak adjetiboaren lekua betetz. Hobe, dudarik gabe, bi hizkuntz

ofizialak menperatuz gero, baina bakarria jakiteak ezin dezake inolako bazterketarik suposa.

PSE-EEK Udal hauteskundeetara aurkezten duten ze-

rendan euskaraz hitz egiteko gai direnen portzentaia garrantzizkoa da: horien artean euskal irakasle eta bizketaldi arruntetan hitz egin eta ulertzeko gai diren dozena erdi lagun. Bozeramaleak euskara menperatuko du.

Kanpaina guztiz desegokia eta antidemokratikoa iruditzen zait. Taldeak sinadura biltzearekin zera nahi du: maiatzako hauteskundeetatik sorturiko alkatea euskaradun izatea. Hala ere, kanpaina ez da iritzi eskakizun moduan egiten; ez dago galderarik, baieztapen irmoa baizik: Alkate euskalduna, noski! Proposamenak ez dio Estatutoaren ildoari jarraitzen, nazionalista batzuek ezarri nahi duten monolingüismoari baizik. Eta euskara ez da nazionalisten ondarea bakarrik.

Gure programan erreferentzia eta ardatza Euskararen Normalkuntzarako Legea izango da. Euskararen berreskurapenean aurrerapauso garrantzitsuak eman dira, baina kontuan hartu behar da ezin dela inposaketa bidez bideratu. Arazoak denbora behar du eta ez da diskriminaziorik eman behar”.

“Politikariok erakutsi behar dugu euskararekiko benetako borondatea”



J.J Petrikorena Herri Batasuneko kidea: “Erabat ados gaude kanpainarekin, eta horixe bera aldarrikatu dugu geuk ere gure programan. Batetik, nabikoa eskarmentu izan dugu

Pilar Collantesen legealdian, euskararekiko izugarritzko axolagabekeria erakutsi baitu, eta ondorioz atzerapauso handiak eman dira Udalean. Bestetik, legez aitortzen zaigun eskubidea aldarrikatzen dugu. Hizkuntz ofizialak euskara eta gaztelera dira, eta herritarrek Udalarekiko harremanetan batean zein bestean jarduteko eskubidea daukate.

HBk zerrendak osatzean ezinbestekotzat jotzen du hautagaiak euskaldunak izatea. Dena den, hau ez da hitsetik ateratako zerbait; gure eguneroko jarduna ere euskaraz izan dadin lan handia egiten dugu.

Herrian nabiz udaletxean euskarak bizi duen egoera oso kezkarria iruditzen zaigu: erabileran daude hitzune handiak, eta gazteengan gaztelararako joera oso nabaria da. Euskararekiko kontzientzia berzpiztea eta presio soziala egitea ezinbestekoak dira egoera benetan konponezina bihurtzerik nahi ez badugu. Eta alde horretatik HBk ongiatorria eman nahi dio EHE taldeari.

Euskararen Udal Ordenantza oso tresna egokia da euskara bultzatzeko, baina ez azkenengo legealdian ezta lehenago ere ez da kontuan hartu. Borondate politikoa falta izan da. Bestalde, politikariok erakutsi behar dugu euskararekiko benetako borondatea, gure adibidea oso garrantzitsua da. Gure aldetik borondaterik ez badago, gutxi eskatu ahal izango diogu berriari.

Gure programan, euskarari dagokionez, ordentantza betetzera joko dugu. Behingoz saltoa eman, eta udaletxean euskaraz lan egiten hasi beharra dago. Horretarako epeka betetzeko plangintza zehatza aurkeztuko dugu aurki, izan ere horretarako talde guztien adostasuna behar da”.

“Andoainen euskaraz bizi daiteke”



Miguel Angel García, Ezker Batuko hautagaia: “EHE taldearen kanpaina positiboa da; administrazioan lan egiten dutenek nabiz politikariek bi hizkuntz ofizialak

jakin beharko litzukete. Gure alderdiari ere zerrenda osatzean garrantzitsua iruditzen zaio hautagai euskaldunak osatzea, gutxienez ulertzea eta zertxobait hitz egitea. Dena den, momentuz ni naiz euskaldun bakarria.

Andoainen euskararen egoera ona da, euskaraz bizi daiteke. Dena den, gaur egun Udala zenbait gairi arreta gehiago eskaini beharko lieke, helduen euskalduntze eta alfabetatzeari, adibidez; euskaltegetara helduak joan beharrean, gaztetxoak joaten dira. Bestelde, OHOean, A eredian batez ere, euskararen ezagutza ziurtatu beharko litzateke.

Udal langileei dagokionez, euskara ikasten denbora gehiegilxo igarotzen dutela iruditzen zait, lan orduetan eta ordainduta, gainera. Nire ustez gogorrago egin beharko litzateke. Ezker Batua Udaleko idatzi guztiak euskaraz nabiz erdaraz kaleratzearen aldeko da, nabiz eta itzulpenen bidez hori egitea oso garestia izan. Politikoei berriz, askotan euskara itxurakeria hitsez erabiltzen dute jende aurrean, eta beste batzuek, PPK eta UAK adibidez, arma politiko bezala”.



Herriz herri

Herria hankaz gora

Irailerako udaletxea eta inguruak eraberrituta

Bukatu berri dituzte udaletxeko bulego berriak egongo diren solairuko lanak, eta bukatu bezain laster ekin diote beheko solairua konpontzeari. Beheko lanak ez dira hain luzeak izango: komunak txukundu, elbarrientzat egokitu, egurra apaindu eta argindar instalazioa berritu. Azken-azkenengo lana izango da etxeko aurrealdea margotzea.

Lan guztiak hauteskunde kanpainari hasiera eman baino lehen, maiatzerako bukatuta ikusi nahi lituzke Jabier Zabala alkateak. Halaber, bukatu bezain laster inauguratuko dutela adierazi digu. Etxeari azkenengo ikutua hurrengo urtean emango zaio hala ere, taberna eliz ondora eraman eta udaletxeko azkenengo solairua kultur ekipamendutarako egokitu ondoren. Bien bitartean udaletxeko lehenengo solairua ari dira horretarako egokitzten.

Etxebizitzak irailean

Herriko plazaren atzean eraikitzen ari diren etxebizitza sozialak abuzturako amaituko dituztela aurreratu digute. Dena den etxebizitzekin batera, hauen atzetik Goiburu aldera egingo duen bidea konpotzeko premian daude Adunan, kotxe eta lanetako kamioi guztiak herri erditik ari baitira une honetan igarotzen, eta gainera, herria txikia izan arren, aparkaleku arazoak ere badauzkate une honetan. Errepidearen lanak adjudikatu berri dituzte. Sei metroko zabalera izango du errepideak espalo eta guzti, beraz, enparantza eta herri erdiko bizilagun eta herritar guztiak lasaitasun handia hartuko dutela pentsatzen dugu.

Etxebizitza sozialak adunarrak herria utzi ez zezaten asmoarekin hasi ziren eraikitzen. Eta asmoa neurri handian bete dutela esan beharra dago, izan ere bertakoak gelditzeaz gain, kanpokoak ere bertaratu dira. Hamasei etxebizitza izango dira guztira. Erdiak adunarrek erosi dituzte, eta beste erdiak kanpokoek.



Irailan amaituko dituzte lan guztiak



HOL - ATZ



VACSOL - WR TRATAMENDUA EGURRARENTZAT

OHOL ETA ALTZARIEN TRATAMENDUA

PITZADURA, PIPI eta HEZETASUNAREN
AURKAKO TRATAMENDU FIDAGARRIA

Agaitz auzoa, z/g.

☎ 69 30 63 - 69 07 34
BILLABONA



EUROPEAN SCHOOL

INGELES - FRANTSESA
ALEMANIERA - EUSKERA

ORDUTEGIA

GOIZEZ 9-1. ARRATSALDEZ 4.30 - 9.30
LARUNBATEAN 9 - 1

Berria, 10 beheha - Tel 693976 BILLABONA

EUSKALDUNA



Edaritegia

Bilar-jokorako aretorik
aproposena!!

Txermin kalea, 4 - ☎ 69 36 47 BILLABONA

ASESORIA
GESTORIA
ASEGURUAU

ALDAMA - TAPIA

KALITATEA ETA SEGURITASUNA !!

KALE BERRIA 22

TELEFONOA 59 44 76 - 30 01 67

20140 ANDOAIN



Gizarte famili zentruaren eskaintza

Ez dira ikastaro hutsak; hezkuntza orokorra baizik.

Hogeita sei urtez geroztik dago gizarte famili zentrua Agustin Leitza kalean. Eta geroztik Andoaingo eta baita inguruko herrietako ehundaka emakumek hartu dute parte bertan antolatutako ekintza eta ikastaroetan. Oro har emakumezkoen zuzendutako zentrua da, dena den, emakumezko nahiz gizonezkoentzako hainbat ekintza ere antolatu ohi dituzte. Helburua bertaratzen diren emakumeen hezkuntza orokorra da.

150 emakume inguruk jotzen dute urtero zentrua bertako zuzendaria den Begoña Aranak adierazi digunez. Gizarte eta kultura animazioa dute lehenengo helburutzat, azkenean, emakumeen hezkuntza orokorra lortzeko. "Zentrua ez da ikastaro hutsak eskaintzen diren lekua", adierazi digu Begoñak, "gure filosofia orokorra da eta ikastaroen zentzu berezia eman nahi diegu; irakasleari animatzaile eta hezitzaile izan dadin eskatzen diogu". Bere esanetan pertsona bakoitzarengandik daukan onena ateratzen saiatzen dira, era berean pertsona osoa izatera iristeko prozesu baterantz bideratuz. Azkenean, emakumearen autoestima areagotzea, independetagoa izatea, eta bizitza sozial eta kultural zabalagoa izatea lortu nahi dute.

Emakumeak zentrua hurbiltzen direnean, normalean, lehenengo beti aukeratzen dituzte eskulan eta sukaldaritza ikastaroak. Dena den, zentruko programazioaren arabera helburua antolatuta dauzkaten arlo ez-



Emakumeak eskulanetan

berdinak ezagutzea da: osasun arloa, kultura arloa eta arlo psiko-soziala. Eta hain zuzen ere emakumeek azkenengo esparru hauek ezagut ditzaten, batez ere.

Emakumezkoen gabeziak

Gipuzkoa osoan horrelako sei zentru daude Kutxa fundazioaren babesean. Sortu zituztenean emakumezkoek euren egoera sozialak behartuta zenbait hutsune eta gabezia berezi zituela ohartu ziren, eta horiei aurre egin nahian eratu zituzten. Dena den, gizarte bilakatu den bezala, zentruak ere aldatu egin dira. "Hasiara batean emakumeengana iristea askoz ere errazagoa zen" kontatu digu Begoñak, "beharra handiagoa zelako; orain berriz, behar berbera daukaten emakumeak ere badaude, baina egoera marginalagoetan aurki ohi ditugu, beharbada".

Emakume edadetuak eta gazteak aurkitu ditugu bertan, izan ere, bestela suposatu arren, lehenengo emakumeek zeuzkaten hainbat gabezia dauzkate gaur egun oraindik neska gazte batzuek.

Ikastaroak

Eskaintzen diren ikastaroen artean gimnasia, geriatría, pintura, eskulanak, kultura, sukaldaritza, psikologia, argazkigintza eta beste batzuk daude. Aipatzekoa da, hala ere, euskara ikastaroa adibidez; nonbait, adin eta egoera bateko emakumeek euskara ikasteko gogoia izan arren, arrazoi askorengatik euskaltegiara joatera ez ziren ausartzen. Zentruan lehenengo urratsak ematen dituzte, eta beldurra kendu ondoren jotzen dute interesa daukatenek euskaltegira. Emakumeek lana aurki dezaten eskaintzen diren ikastaro bereziak ere interes handia pizten dute.



Zabala
Ordukari Bitxitegia

Kale Nagusia, 14 - ☎ 59 37 45 - ANDOAIN
Gudari enparantza - ☎ 33 23 41 - HERNANI

Ikatz
Taberna

GIRORIK JATORRENA !!

Larramendi, 19 - ☎ 59 41 89 ANDOAIN

Andoain



KITTO gazte kolektiboaren ekimena izan da

Bideo-foruma maiatza bitartean

Hilabete honetan Kitto gazte taldeak antolatuta hiru filme ikusteko aukera izan dute herritarrek Kultur Etxean. Hiru gaiak harreman sexualak eta homosexualitatea gaia jorratu dituzte, eta azkenengo filmearen ondoren bertaratutakoek gaiari buruz euren iritzia eman eta besteena entzuteko aukera izan zuten. Dena den, hiru filme hauek hasiera baino ez dira izan, eta aurrerantzean ere larunbatetan proiektio gehiago ikusteko eta gai ezberdinei buruz eztabaidatzeko parada izango da. Horixe da hain zuzen ere, bideo-forumaren helburua.

“El banquete de bodas” filme txinarra, “Abrete de orejas” estatu batuarra eta “Querelle” alemaniarra izan dira filme zikloari hasiera eman diotenak. Gaiari buruz eztabaidatzeko, gainera, EHGAMko (Euskal Herriko Gay Askapenerako Mugimendua) partaideak egon ziren. Hurrengo hilabeteetan eta bideo-forumak iraun bitartean, hau da maiatza bitartean, beste hainbat gai eta arazo sozial jorrazteko aukera eskainiko du gazte taldeak.

Helburu bikoitza

Bi dira, hain zuzen ere, bideo-forumaren helburuak: batetik, jendeari hainbat gaietaz hausnartarazteko eta eztabaidatzeko aukera ematea “zinemak gai ugari ikutu ditu beti, eta bide berriak ere ireki ditu” esan digu Jon Zulueta Kittoko partaideak, eta bestetik, Andoainen berriro berpiztu nahi dute zine areto baten beharraren kontzientzia jendearengan. Gaur egun bi zine areto daude herrian: La Salle-Berrozpe ikastetxekoa eta Maiza zaharra. Lehenengoarekin Udalak hitzarmena eginda dauka zenbait ekitaldi bertan egiteko. Maizakoa gaur egun ez da erabiltzen. Jonen ustez Udalak zerbait egin beharko luke herritarrei zine areto egokia eskaintzeko. Ondoren zine talde bat eratu beharko litzatekeela uste du, proiektioei buruzko irizpideak ezartzeko.

Lehenengo filmeez nahikoa kutsu negatibista, kritikoa eta gogorra izan dute. Dena den, aurrerantzean beste era bateko filmeez eta, beharbada, zine komertziala ere eskainiko dutela aurreratu digute. Egitaraua osatzean Hernaniko zine-klubarekin aritu dira harremanetan, eta aurrerantzean ere filme interesgarriak eskaintzen jarraitzeko ideari eutsiko diote. Kean Koach zuzendari britaniarraren ziklo bat, eta euskaraz eginiko zinema dira beren ideietako batzuk.

EGITARAUA:

Apirilak 1:	<i>“Querelle”.</i>	16.00.
Apirilak 23:	<i>“Agenda oculta”.</i>	18.00.
Maiatzak 14:	<i>“Noches salvajes”.</i>	18.00.
Maiatzak 21:	<i>“Lloviendo piedras”.</i>	18.00.
Maiatzak 28:	<i>“American me”.</i>	18.00.

OHARRA

Pagadigaña hilerrira joateko autobus ordutegi berria: asteazken eta larunbatetan 11.15etan Sorabillatik irtengo da eta enparantzatik igaroko da ondoren.

URPA, S.M. AUTOBUSAK



**KALITATEA
ETA
SEGURTASUNA
ZURE
ZERBITZURA!!**

Sorabilla Auzoa, 53. Pol.

☎ (943) 59 38 05

Fax (943) 30 01 06

Autobusak. (908) 17 18 92

Mobilak (908) 77 20 43

**ANDOAIN
GIPUZKOA**

OGi ZURi

Okindegia

ZURI ZURIA...

Lizarra kalea, 32
☎ 69 18 96 ASTEASU

OGi-GOXO

Okindegi eta Gozotegia

EDO BELZTUXEAGOA,
BAINO GOXO
GOXUA!!

Kale Nagusia, 26
☎ 69 32 94 BILLABONA



EAJ-PNV eta EuE bat eginda

Abertzaletasun demokratikoaren esparrua berea egin nahi dute

EAJ-PNV alderdiko Antonio Amondarain, Mikel Arregi eta Eneko Egibar, eta EuEko Maxen Zinkunegi eta Eugenio Ariztimuñok aurkeztu zuten bat eginda Udal hauteskundeetarako prestatu duten egitarauaren zirriborroa. Herritar guztiak gonbidatu zituzten behin-betiko egitaraua izango dena osatzera. EAri taldera biltzeko deia egin ziotela adierazi zuten. EAren ezezkoa tamalgarrizat jo zuten. PSE-EE eta HB alderdiak arrazoi ezberdinak direla mendio, bilkuratik kanpo utzi nahi izan dituzte. Azkenik, ziurtzat jo zuten hurrengo Udal hauteskundeetan boto gehien jasoko dutela.



PNV - EAJ eta EuE bat eginda

"Batzen gaituena, bereizten gaituena baino gehiago eta garrantzitsuago da" adierazi zuen Eugenio Ariztimuñok, "nahiz eta ezin uka, sakoneko ezberdintasunak ere badauzkagula". Andoaianen politika egiteko modu berri bat eraiki behar dela eta abertzaltasun demokratikoaren ildoan indarrak elkartu beharraz konturatu direla adierazi zuen Amondarainek, eta horretan lehenengo urratsa EAJ-PNVk berak eman behar zuela. Horregatik, egin zien dei EuE nahiz EAri. "Herrian soziologikoki gehintsuena den populazioari erantzun bateratua eman nahi diogu" jarraitu zuen, "Gure ustez, abertzaletasun demokratikoak Euskal Herrian duen zatiketa ulertezina bada ere, Andoaianen horrek eragiten dituen ondorioak benetan kezagarriak eta tamalgarriak dira".

Ariztimuñoren esanetan askotan esaten omen da alderdiek alderdikeriez jokatzeko dutela, "guk gure koherentzia politikoak elkartzeko prest gaudela erakutsi nahi dugu, gure hurrengo alkatea nazionalismoaren esparru demokratikokoa izan dadin". Azkenik, bi alderdien bilkura bi zutabetan oinarritzen dela adierazi

zuen: pluralatasunari errespetoa eta egitaraua bera.

Egitarauaren zirriborroa

Egitaraua erreal eta murrizta dela adierazi zuten prentsaurrean, gaur egun Udalak dauzkan baliabideei egokitutako egitaraua hain zuzen ere. Kultura arloan Basteroko kultur zentrua jo dute erronkarik handienetzat. Horrez gain Udal Kultur Kontseilua bultzatzea, herriko taldeekiko harremanak estutzea, Udal zerbitzuak hobetzea eta herriko historia ezagutzeko dirulaguntzak ematen jarraitzea, Leizaur eta Andoaingo paperak argitaratzen jarraitzea... Hezkuntzari dagokionez, besteak beste, heziketa sistemaren erreformaren arabera Udal haurtzaindegia sare publikoan sartzeko prozesua burutu nahi dute, musika eskolaren egitasmoa heziketa legera egokitu eta egoitza berria eskaini.


Gaztediaren plan integrala egin nahi dute kultura, kilora eta heziketa sailekin batera eta kaleko dinamizazioaren figura bultzatu. Gaztetxeari dagokionez, gaiari gainerako kultur ekipamenduekin batera irtenbidea emateko asmoa daukate.

Kirol arloan Alurralde kiroldegia-

ren eskaintza optimizatu eta bigarren faseari ekin nahi diote, futbol zelaiari lehentasuna emanez eta eskuladeko atletismo pistaren egitasmoa berreskuratuz. Arrate pilotalekua konpontzeko asmoa ere agertu zuten eta ibaiaz beste aldeko kirol eta aisialdi ekipamenduak bultzatzeko.

Euskararen Udal Ordenantzako helburuak bete daitezten bideak jarritzea eta hizkuntz eskakizunen plana 2.000 urte bitarterako egiteko nahia aipatu zuten. Hala nola, euskarazko komunikabideak bultzatzen jarraitu eta euskalduntzen eta alfabetatzen ari direnei dirulaguntzak ziurtatu. Azkenik herriko toponimia ofiziala onartu eta kale eta bideak seinalizatzeko nahia azaldu zuten.

Gizarte ongizateari dagokionez orain arte martxan dauden programei jarraipena emango diote eta besteak beste, %07aren aldarrikapena beteko dutela adierazi zuten. Hirigintzari dagokionez aipaturiko azpiegiturez gain Kale Nagusiaren urbanizazioa, Bekoplazaren konponketa eta Kale Txikiko ospitale zaharra ere aipatu zituzten. Azkenik, Leizaran bailan ingurugiro eskola bat eta Iriur urtegia eraikitzeko nahia agertu zuten.



Herriz herri

Zuhaitz eguna

60 pago landatu zituzten Andazarraten

Asteasu

Zuhaitz bat landatu, liburu bat idatzi eta haur bat izan, horiek omen dira, esaera zahar baten arabera, bizitza honetan egin beharreko hiru gauza garrantzitsuak. Honez gero, inguruko haur gehientsuenek izan dute aukera zuhaitza landatzeko, eta geroakoak gero etorriko direla pentsatzen dugu.



Aurreko urteetakoak bisitatu eta berriak landatu

Ikastetxe guztiak ospatu dute hilabete honetan Zuhaitz Eguna, baita Asteasuko Pello Errota ikastetxeko ikasleak ere. Hirurogei neska-mutil inguru abiatu ziren hilairena hamaikan Andazarrateko gainera eta landatu zuten pago bana. Lehen pinua egondako lur zatia aukeratu zuten horretarako, irakasleen esanetan nahikoa toki zikina, sasiz jositakoa. Hala ere, neska-mutilek atxurra hartu, zuloa egin eta pago adaskak landatu zituzten aldamenean euren izena eta data jartzen zuen harri bat ipiniz. Era horretan hemendik laupabost urtetara adaskak hazitakoan ezagutu ahal izango dituzte.

Bertako zuhaitzak

Landaketa egin eta gero aurreko urteetan landatu zituzten haritzak ikustera joan ziren ikasleak, eta ez zuten poz txikia hartu adaskak hazita ikustean.

Urtero ikastetxeek egiten duten ekintza honi oso harrera ona egiten diote gaztetxoek. Eta pinuak kendu eta bertako zuhaitzak ezagutu eta landatu ahala naturara hurbiltzeko aukera izaten dute.

Argitarapen honen edizioako laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



-
-
-
-

kutxa fundazioa
fundación kutxa

- gipuzkoa donostia kutxaren
- gizarte-ekintza
- obra social
- de la caja gipuzkoa san sebastián



“Bidean” talde berriaren hautagaiak

Jose Ignacio Mujika eta Eduardo Laborde lehengo eta bigarren



Jose Ignacio Mujika izango da Bidean Udal hauteskundeetarako aurkeztuko den talde berriaren alkategaia. Egungo alkatea den Eduardo Labordek eta Jose Luis Arnaez eta Imanol Arratibel zinegotziek jarraituko diote bigarren, hirugarren eta seigarren lekuan. Euskadiko Ezkerra zenetik etorritako herritarrek orain dela urtebete egin zuten analisiaren ondorioz sortu zen taldea. Maiatzean eman zuten alderdia ezagutzera, eta orain aurkeztu dute zerrenda osoa.

Jose Ignacio Mujikak, Eduardo Labordek, Jose Luis Arnaezek, Jesus Urretak, Seve Iglesiasek, Imanol Arratibelek, Alberto Ariñok, Arrate Garmendiak, Juan Piedrak, Carmen Chivitek, Jose Ignacio Santamariak, Karmele Larburuk eta Jose Luis Gonzalezek osatzen dute zerrenda. Haueaz gain Luis Angel Lopez, Alfonso Mendia eta Jorge Alvarez izango dira ordezkokoak.

Orain dela urtebeteko hausnarketaren ondoren beste kultura politikoetako herritarrak bereganatzen saiatu direla adierazi zuten prentsaurrean, “eta bereziki gure

zerrenda pertsona independentekin osatzen” gaineratu zuten. Asmo horrekin bada, bestek beste elkarteetan, guraso elkarteetan eta sindikatuetan lan egiten ari diren herritarrak bildu zaizkie.

Talde guztiekin harremanak

“Maitzaren 28ko gauean Billabonatarren artean konfidantza gehien lortu duen kandidatura izatea espero dugu” adierazi zuten, “eta horrela bada, ez dugu suzirikin ospatuko, ezta gutxiago ere; 29an korporazio berria osatzeko lanean hasiko gara”. Aurreratu dutenez, eta alkatetza

eskuratuz gero, alderdi politiko guztiekin alkartzeko asmoa daukate: “Barne egiturak eta gure herria giza ikuspegitik hobetzeko lan egiteko prest daudenak aukera izango dute; hori bai, jokuaren arauak eta herri honek bakean bizitzeko dituen nahiak errespetatuz”.

Azkenik, orain arte indarrak zerrenda osatzen jarri dituztela esan zuten, eta aldi berean egitarauaren zirraborra ere prestatzen aritu direla. Prestatutakoa herriari ezagutzera emango ziotela esanez amaitu zen Gurea zinema aretoan eskainitako prentsaurrea.

Etxebizitzari buruzko inkesta

Larrea auzoan babes ofizialeko etxebizitzak egitea aurrikusita dago

Aurki jakingo dira IKERTALDEK hilabete honetan zehar Billabona eta Zizurkilgo bizilagunen artean egindako inkesten emaitzak, eta horren arabera Billabonako Udalak Larrea auzoan eraiki nahi dituen babes ofizialeko etxebizitzetzi buruz erabakiren bat hartzeko moduan egongo da Eusko Jaurlaritzarekin batera.

Kutxak Larrean daukan lur sail bat saltzeko asmotan dagoela jakin du Udalak, eta erosteko aukera ere aztertzen ari da. Beraz, guztira, eta Kutxari bertan daukan lur saila erosi ondoren,

62 etxebizitza eraiki ahal izango direla aurrikusi da, dena den, inkestak argitutuko du benetan herrian dagoen eskaria, eta horren arabera erabakiko du Udalak etxebizitza kopurua.

Inkesta

Hogei urte gutxienez badira Billobanako Udalak babes ofizialeko azkenengo etxebizitzak eraiki zituenetik, eta aipaturiko inkestak jakinmin eta interes handia sortu du herrian. Hasiera batean Udalak idatzi bat banatu zuen etxez etxe interesatuei Udalera jo zezaten animatuz. Bertan izenematea egin ondoren IKERTALDE izan da banan-banan interesatu guztiari deituz

eta ondoren inkesta betetzen laguntzeaz arduratu dena. Datu guztiak biltzen ari dira une honetan herrian dagoen eskaria ezagutzeko. Behin emaitzak ezagutu ondoren Udala berriro bilduko da Eusko Jaurlaritzarekin zer nolako etxebizitzak eraikiko diren erabakitzeko.

Gaur egun 1.540 etxebizitza daude Billabona 5.360 biztanleentzat. Eta galdetegiaren bitartez zehaztu ahal izan dira zein eratako etxebizitzak nahi dituzten herritarrek, lehenengo etxebizitzaren bila ari diren edota aldaketa den, ordaintzeko aukerak eta moduak, lan egocera, eskatzailearen ezaugarriak eta beste hainbat xehetasun.

Billabona-Amasa



Herriz herri

SACEM: 18 lagun kalera

Langile ez kualifikatuen ordeztu, langile kualifikatuak

Hemezortzi lagun kaleratu ditu SACEM enpresak joan den hilean.

Enpresa komiteak negoziaketaren bidea jorratu du enpresaren zuzendaritzarekin akordioetara iristeko, azkenean, astebeteko greba egin ondoren indemnizazioak hartuta kaleratu behar izan dute 18 langileek. Azkenengo lau urtetan 70 lanpostu galdu dira lantegian, eta gaur egun 118 geratzen dira lanean. Kaleratzearen arrazoia ez da lan falta izan, langile kualifikatuen beharra baizik. Herrian albisteak sortu duen kezka dela eta, Udalak lantegiaren egungo egoerari buruzko txostena eskatu die zuzendaritzari nahiz enpresa komiteari.



Merkatu arazoak izan ditu enpresak

Orain dela lau urte 60 lagunek galdu zuten lanpostua, hauetatik 44-ri jubilatuz aurreratua eskaini zitzaion. Orain bi urte 30 lagun kaleratu zituzten, hauetatik 10 jubilatuz egin zituzten. Hirugarren aldi honetan 18 laguni tokatu zaie txanda. Astebetean ziren otsailean asanblada eta lanuzteak lantegian, baina akordioetara iristea ez zen erraza izan, eta azke-

nean, zuzendaritzak ezarritako baldintzapean kaleratu dituzte langileak.

Zuzendaritzak lantegiko egitura arazoak eta baldintza teknikoak aipatu ditu kaleratzearen arrazoitzat. Ez ditu arrazoi ekonomikoak bultzatu, izan ere enpresa komiteko kide den Joxe Mari Galarragak adierazi digunez, une honetan lan asko daukate lantegian, langile batzuk 12 ordu extra ere ari dira egiten. Baldintza tek-

nikoei dagokienez, zuzendaritzak dioenez, langileagoa merkatu eta ekoizpen ezaugarri berrietara egokitu beharra daukate, alegia, langile ez kualifikatuak soberan daude, eta kualifikatuak behar dituzte. Dagoneko enpresa hasi da hainbat langile kualifikatu kontratatzen.

Aurrikuspen eza

“Beste behin langileok krisiaren eta aldaketa teknologikoen biktima gara” diote enpresa komiteko kideek. Era berean zuzendaritza gogor salatzen dute 80eko hamarkadan lantegian izan den gestio txarra eta heziketa eta birziklapen mailan izan duen aurrikuspen falta argudiatuz. Izan ere, bi arazo horiek hartu dituzte egungo egoeraren benetako eragiletzat, euren ustez, alde aurretik neurriak hartuz gero, ekidin zitezkeen arazoak. Aurrera begira eta epe motzean espediente gehiago egingo ez dituztela agindu du zuzendaritzak, hala ere enpresa komiteak zalantzak dauzka.

SACEMen aspaldi ari dira ordu extrez baliatuz lan egiten, 10 eta 12 ordu extra ari dira langile batzuek lan egiten. Zuzendaritzak dioenez ordu horiek behar-beharrezkoak dituzte dauzkaten egitasmoak bete ahal izateko. Kontuan hartzekoa da 1979 geroztik lantegiaren urteko balantzeak negatiboak izan direla. Hala ere, enpresa komitea beti egon da ordu extremen aurka eta 1995eko hitzarmenean ere ordu horien aurkako proposamena egingo dute.

BENGOETXEA

Aukeratu zure gida karneta


VILLABONA ☎ 69 00 57 ANDOAIN ☎ 59 44 06

BENITO

HARATEGIA
URDAITEGIA

KALE NAGUSIA, 22 ☎ 69 11 49
ARROA KALEA, 4 ☎ 69 13 50


BILLABONA



Ekin diete Udal hauteskunderi

Alderdi politikorik ez; guztiak independente

Apirilaren bian hautatuko dituzte Larraulen hurrengo Udal hauteskunderetako bost zinegotziak eta bi ordezkokoak. Maiatzean Alkatea bakarrik aukeratu behar dute. Betiko ohiturari jarraituz aurten ere alderdi politikoren izenean ez da hautagarik aurkeztuko, guztiak izango dira independente. Egungo Udal ordezkariak dei berezia egiten die herritar guztiei datorren igandean eguerdiko hamabietan udaletxera hurbil daitezen beren hautagaiak aurkezteko.



"Era honetan eztabaida gutxiago izaten dira" dio Antton Amonarriz alkateak, "150 bizilagun dauzkan herri txiki batean alderdiekin lanean hasiko bagina, ez genuke arazorik konponduko, eta azken finean, herriaren alde lan egitea da garrantzitsuen".

Iganderako bozkatzeko eskubidea daukaten herritar guztiei egin zaie deia gutunen bitartez beren hautagaiak aurkez ditzaten. Normalean, eta orain arte gertatutakoaren arabera, Larraulgo herritarren erdiak har-

tuko du parte. Zerrenda horretatik boto gehien jasoko duten hamar herritarrek aukeratu dituzte ondoren, eta segidan hamar horien artean Udala osatuko duten bost zinegotziak eta bi ordezkokoak. Era horretan maiatzean alkatea aukeratzea baino ez zaie gertatuko. Alkatea bost zinegotzi horien artean aukeratu ohi dute, alegia, boto gehien jasotzen duena izango da Alkate.

Azkenengo lau urteko alkatea eta lau zinegotziak Antton Amonarriz,

Gotzon Jauregi, Joxepi Azkue, Jon Tejeria eta Pako Treku izan dira, eta alkateak esan digunez pozik daude egin duten lanaz. Ahalegindu direlakoan dago eta lortu dituzten emaitzak onak direla uste du. Hurrengo lau urtetan Alkate izaten jarraitzeko gogorik ote daukan galdetu diogunean ez du ez baietzik ez ezetzik esan, "garrantzitsuen jendearen iritzia ezagutzea da, eta hori bozketa- ren emaitzek jakinaraziko digute".

URBIETA ANAIAK

GARRAIOAK

KALITATEZKO SU EGURRA




- Neurrira moztuta eta urte osoan
- Haritza eta pagoa
- Etixerainoko zerbitzua

GARRAIOAK ORO HAR

Larraulgo plaza, Etxeberri etxea, 1 - ☎ 69 35 76 - LARRAUL

OHARRA

Larraulgo Udalak guraso eta haur guztiei jakinarazi nahi die hemendik aurrera Muskil Elkarteko lagunak astelehenero arratsaldeko bostetatik zazpiak bitartean Larraulen izango direla herriko neska-mutilekin kirola eta jolasak egiteko. Dei berezia egiten zaie 2-14 urte bitarteko haurren guraso guztiei euren seme-alabak parte hartzera anima ditzaten.




Zizurkil

Herriz herri

II. Txapela eguna Zizurkilen

Elizaldeko Iñixio da aurtengo txapelduna.

Martxoaren 11an, II. Txapela Eguna ospatu zen Zizurkilen. Aurten Elizaldeko Iñixio izan da omendua. Hala ere, egun honen helburu bakarra ez da norbait urteko txapeldun izendatzea, zizurkildar guztiak txapela buruan dutela jai giroan ibiltzea baizik. Nahiz eta txapelaren erabilera bultzatu egun honetan ez da etekin kultural edo dena delakoa ateratze-agatik ospatzen; batasunean eta jai giroan ibiltzeko eguna dugu hitz gutxitan esanda.



Kaskoa ondo estalita zeramaten guztiek

Goizetik hasi zen festa Zizurkil goian. Eguerdiko hamabiak aldera txupinazoarekin eman zitzaion hasiera. Ondoren ahari jokoa eta asto lasterketa egin zituzten, herriko baserri ezberdinetako ahari ederrenak eta astorik azkarrenak ekarriz. Aposturik gabeko eta lehiarik gabeko jokuak izan ziren guztiak, herritarren arteko lagunartea bultzatzeko.

Zizurkil Zutik taldeak antolatzen du urtero txapelaren eguna eta diotenez, nahiz eta txapela eraman behar, zizurkildarrak elkartzeko eta ondo pasatzeko eguna da, aitzaki polita adin eta izaera guztietako zizurkildarrak elkartzeko. Ondorioz, kultura eta usadioa jai giroarekin eta lagunartearekin uztartzen dira egun honetan.

Bazkalondoa II. mus txapelketa jokatu zuten Iriarte kultur etxean, eta irabazleek arkume pare ederra eraman zuten. Afariarekin hasi aurretik, txikiteoan ibili ziren zizurkildarrak.

Afaria izan zen eguneko ekintza edo ospakizunik nagusia, bertan Iñixiori txapela emateaz gain, egunean zehar ospakizun ezberdinetan ibilitako zizurkildarrak mahaiaren inguruan eseri baitziren festari jarraipena emateko. Iriarte etxean egin zen 80 lagun bildu zituen afaria. Jatetxea lepo eginda zegoen eta leku falta zela eta, kanpoan gelditu behar izan zuenik ere izan zen.

Elizaldeko Iñixio, txapela buruan duen gizona



Afarian jarri zion txapela Iñixiori iazko txapelduna izan zen Meko-lako Praixkuk. Urteetan txapela eramateagatik eta gehienbat, biak herrian oso ezagunak eta maitatuak direlako eman zaie biei ohorezko txapela.


Soinuaz eta dantzaz lagunduta jai giro polita izan zen afalostean. Gazteenek goizaldera arte iraun zuten eta hain gazte ez zirenek ere komeriak izan zituzten etxera erretiratzeko.

Ainhoa Oiartzabal

«Ekintza guztietan beharrezkoa da txapela erabiltzea»

Egunean zeharreko ekintza guztietan txapela jaztea derri-gorrezkoa da. Txapelaren erabilera bultzatu nahi da era horretan eta gainera, txapelari omenaldi bat egin nahi zaio.

LOATZO ASEGURUAK - ASESORIA



ZURE ETORKIZUNA
BIZI ASEGURUA
JOXERRA GARMENDIA MUJIKA
IBON GARMENDIA UGARTE

Antxin kalea, 3 behe - ☎ 69 39 13 - Faxe 69 38 43 BILLABONA


AURRERA
TABERNA

Girorik ederrena gazterientzat!!

ZIZURKIL

Herri txikiak, herri biziak


Tolosaldeko hamabost herri txikik osatzen dute Muskil Giza Kultur Elkarte, euren artean Beterriko Aduna, Asteasu, Larraul eta Zizurkil. Badira lau urte gutxienez ideia sortu zenetik, elkarte legez iaz sortu bazen ere. Bulego iraunkorra Asteasundago, eta kontatu digutenez Euskal Herrian esperientzia bakarrenetakoa da. Helburua oso zabala izan arren, laburbilduz esan daiteke herri txikiek galduta daukaten herri bizitza berreskuratzea dutela helburu. Dena den, proiektua oso zabala denez, aisialdian, kirolen eta jolasen bitartez haurrengana hurbiltzen ematen hasi dira lehenengo urratsak. Muskil elkarte-ko koordinatzailea den Jasone Etxeberriarekin hitz egin digu elkarteak dituen egitasmoetaz.



- *Kirola eta jolasa haurrengana hurbiltzeko*
- *Jaiotze tasa oso baxua da*
- *Gurasoen partehartzea eragin nahi dute*

Orain dela aste batzuk Bidegoian herrian egin zituzten topaketak izan ziren Muskilek herritarren artean, gaztetxoeren artean batez ere, sortu duen interesaren lekuko. Ehunen bat lagun bildu ziren. Bertan ospatu zituzten eskolarteko II pilota txapelketak. Alkizakoek eta Altzokoek hartu zituzten lehengo postuak; bigarrenak asteasuarren eskuetan geratu ziren. Ondorengo dantza eta bertso saioak, eta txokolatak zuzpertzituen txiki eta handiak, egin zuen eguraldi txarra ahaztaraziz. Joan den astuzten futbol eta zuten umore ona ziren gutxiago-
Tolosaldean natuta dauden biltzen dira Muskil: Aduna, Alkiza, Asteasu, Larraul, Zizurkil; Belauntza, Berastegi, Berrobi, Leaburu-Gaztelu-Xarama; Altzo, Lizartza, Orendain; eta Albiztur, Bidegoian eta Errezil. Herri hauen guztien ezaugarri amankomuna da euren biztanle kopuru txikia, oso esparru zabalean sakabanututa egon arren. Txikienak, Larraulek 139 biztanle baino ez dauzka. Bestalde, orokorrean, 16 urte beherako oso haur gutxi daude guztietan: Larraulen 22 baino ez, Orendainen beste hainbeste, eta Alkizan 33. Eta

momentuz behintzat, ez dirudi jaiotze tasa gora egiten ari denik, batzuetan nagusien batez besteko adina nahikoa altua baita. Ondorioz, ez Larrualen, ez Orendainen, ez Altzon, eta ez Leaburu-Gaztelun ez dago eskolarik. Kultur Etxea Asteasu eta Albizturren bakarrik dago. Horrek guztiak ondorio ezagunak dakartza: haurrek gertuko herri handiagoren batera joan behar izaten dute eskolara, eskola ezberdinetara batzuetan, eta horrek neska-mutilen eta gurasoen arteko harreman eza, eta herri bizitza eskasa dute ondorioztat.



Neska-mutilak dantzan

Doktrina eta meza ondoren biltzen dira askotan

Herri askotan astegunetako doktrina klaseak edota igandetako meza izan ohi dira bilgune bakarrak. Udako sasoia izan ohi da txarrena urte osoko harreman ezaren ondo-

rioz: haurrak oporretan, zer egin eta norekin elkartu jakin gabe egoten dira. Jasone Etxeberriak berak esan digu, nabaria dela harreman gutxi daukaten oso herri txikietan haurrak, eta haurrak ez direnak pertsona itxia-goak direla, antolatzen diren ekintzetan, ohitura falta dela eta, parte-hartzea gehiago kostatzen zaiela, eta kanpokoak hartzeko mesfidatiago agertzen direla. Eskolaz aldatu eta maila altuak egiteko herri handiagoe-

tara joan behar izaten dutenean salto handia nabaritzen omen dute, ondorioz. Aipaturiko egoera oso bestelakoa izan ohi da eskola eta guraso elkarteak dauden herrietan.

Helburuak

Elkartearen helburuak oso zabalak dira: nekazal herrien kultur nortasuna babestu eta bultzatu, batetik; eta baldintza lagungarriak eragin aurrerapen soziala eta ekonomikoa lortzeko, bestetik. Dena den, abiapuntutzat beste hauek jarri dituzte: kirol eskola bizkortu eta eskola eta gurasoekiko harremanak sakondu. Horretarako gaztetxoenekin hasi dira lanean euren asialdian kirola eta jolasa bultzatuz.

Herri handietakoa bezain eskaintza oparoa egiten zaie

Elkartea lanean hasi zenerako herri gehientsuenetan pilota eskola txikiak bazeuden, eta hortik aurrera hasi ziren lanean. Gaur egun berriz, gazteek pilotan ezezik, beste kirol eta ekintza askotan parte hartzeko aukera daukate gaur egun. Txikienek oinarrizko soin heziketa izan ohi dute, handixeagoek jolas berri ugari ikasi



Skien gainean lehenengo aldiz

ohi dituzte, erdikoek futbolean, atletismoan eta herri kirolean eman ohi dituzte lehenengo urratsak. Baina horiek asteroko ohizko ekintzak izan ohi dira, horrezaz gain bizikletan egindako txangoak, ski saioak, mendi ibilaldiak, izotzetan irristaketa, asteburuko irteerak, lehiaketak eta beste asko izan ohi dituzte. Aurten, gainera, ekintza bereziak eskaini zaizkie: hankapalo ikastaroak, boleia eta eskalada. Ezin esan, beraz, herri txiki-tako hurrek non aukeratu ez daukate. Halaber, Jasonek aurreratu digunez herri batzuetan orain arte udaleku irekiak antolatzen bazituzten ere, aurten beste herri batzuetan antolatzen saiatuko dira. Kirola saioen ondoren herrien arteko topaketak egin ohi dituzte. Batzuek besteen aurka lehiari jartzen dituzte orduan, ordura arteko ikasitakoa erakusteko. Hala ere antolatzaileek lehiaketa kutsua kentzen saiatzen omen dira, ez baita hori euren helburua. Ezin uka ordea, gaztetxoek beti bilatu ohi dutela lehiarako motibua: herrien arteko norgehiagoak ez badira, neska-mutilen artean neurtu nahia izaten dute.

Beste arlo batzuk

Kirola eta jolasak izan dira orain arte haurregana hurbiltzeko modurik errazanak, hala ere Muskilekoek beste ideia batzuk badauzkate, momentuz diru arazoak direla eta, gauzatu ezin dituztenak. Kultura arloan bereziki hainbat herritan egiten dituzten dantza eta triki-



Gurasoen kontrako lehiari gazteenak irabazle

tixa ikastaroak bultzatu eta herrien arteko topaketak egin nahiko lituzkete. Antzerkia ere eskaintza interesgarria izan daitekeela pentsatzen dute.

Kirolak gaztetxoek heziketan ezinbesteko garrantzia du

Gurasoen partehartzea Jasoneren esanetan oso garrantzitsua da. Eta bide batez lerro hauen bitartez proiektuan orain arte parte hartu dutena baino gehiago parte hartzera animatu nahi ditu Jasonek. Izan ere, badirudi, gurasoek ez dietela kirola eta jolas jardunei behar bezain besteko garrantzia ematen, kontuan hartuz, batez ere, herri txiki-tako eskoletan horretarako irakasle berezirik ez dutela normalean izaten. Oraindik ere gurasoek ingelesari edota beste ikasketak batzuei, nonbait, garrantzi handiagoa ematen diete. Jasonek, aitzitik, kirol heziketaren garrantzia azpimarratu digu. Gaztetxoek garapen sozialean eragin handia omen dauka elkarren arteko harremanetarako, gorputza ezagutzeko eta zenbait arau ikasteko, besteak beste.

Lan honek gaurtik biharrera fruituak emango ez baditu ere, Jasone ziur dago etorkizunan herri txiki hauetan gazteek beren herri eusten jakingo dutela, eta herri txikiak inoiz baino herri biziagoak izango direla.



Txorro-morro-piko-tallo-ke

Zizurkil

Adimen urrituen etxea

Integrazio bidean etengabeko urratsak ematen ari dira

Zizurkilen, Fraisoron hain zuzen ere, Uliazpi fundazioak daukan etxean adimen urritasun larria edo sakona daukaten 63 lagun bizi dira. 1981ean ireki zuten etxea, eta geroztik asko dira bertan bizi izan diren gaisoak. Fraisorokoa, Donostiakoaren ondoren, estatu mailan bere ateak ireki zituen era honetako bigarren egoitza izan da. Gipuzkoan Zubietakoarekin batera hiru daude guztira. Etxe honetako bizilagunak zenbait muga fisiko eta psikiko daukate, hala ere, egoitzak eskaintzen dien arreta eta zerbitzu bereziei esker, ahal duten neurrian behintzat, muga horiek gaingitu eta inguruko bizilagunekin harremanak izaten saiatzen ari dira gaur egun. Orain urte batzuk ezi-nezkozat jotzen zen hori. Egoitzako zuzendaria den Joxe Lizasorekin hitz egin dugu gizon-emakume hauen bizimoduaz eta integrazioaz.

AIURRI: Zenbat urte daukate? Eta ze eratako gaisoak dira?

J.L. Lizaso: 30 urte inguru daukate gebienek. Guztiek daukate adimen urritasun larria. Hala ere ezaugarri horrezaz gain, batzuek eta besteek ez daukate arazo berberak: batzuk ez dira mugitzeko gai, beste batzuk epileptikoak dira, bere buruarekiko edo besteekiko erasokor direnak ere badaude...

A: Zein da egoitzaren egitekoa?

J.L.: Orokorrean bemen dauden pertsonen, hala nola beren familien ongizatea eta bizi kalitatea hobetzea da gure helburua. Horretarako etxean nabiz komunitatean, bakoitzak bere burua zaintzeko, etxeko



Etxeko txoko batean

lanak egiteko, aisialdirako eta astia duenerako independentzia eragiten duten trebetasunak eskuratu eta erabiltzeko programak daukagu. Dena den, kontuan hartzekoa da, esan bezela, gure artean ezaugarri ezberdinak daukaten gaisoak daudela, horregatik saiatzen gara bakoitzari abalik eta zerbitzu zehatzena ematen, alegia bere egoera bereziari egokituz. Daukagun errekurtsuak euren beharretara egokitzen saiatzen gara.

Hasieran ongi zainduta zeuden etxea baino ez zen

A: Beti horrela izan al da?

J.L.: Ez, helburua eta gure egitekoa urteak igaro abala garatu egin dira. Ireki berriak zirela, egoitza hauek adimen urrituak ongi zainduta egoteko ziren, alegia "egon"

besterik ez zutela egin bebar pentsatzen zen. Gaur egun herriz, pertsona hauen garapena eta integrazioa dugu azken helburu, nabiz eta bidea luzea eta askotan zaila izan.

A: Integrazioa zein neurritan da posible?

J.L.: Esan bezala, kasu guztiak ezberdinak dira. Baina integratzen ari bideratutako hainbat lan egiten ditugu: batetik, aisialdi talde mistoekin esperientziak egiten ari gara, hau da, adimen urrituak eta bestelako neska-mutilak elkartzuz. Beste batzuk Gurea tailerretan ari dira lanean maila ezberdinean. Gure azken helburua, zenbait kasutan egoitzatik kanpo etxe integratuetan bizi abal izateko trebatzea da. Dena den, integrazioa askotan askoz ere ekintza xebeagoetatik abiatzen da, herriko edozein tabernatarara kafesne bat hartzera edota bazkaltzera joanez. Lehenengo urratsak beti izaten dira zailak, eta ezin esan arazorik izan ez dugunik, baina ka-

lean bertan egin beharra dauzkagu horrelako saiakerak, eta esperientziak edukiz baino ezin-go dugu integrazioaren alde aurrerapausoa eman. Bestalde, egoitzan medikua eta beste zerbitzu batzuk izan arren, gure neska-mutilek edozein herritar bezala, behar dutenean Billabonako osasun egoitzara edota Tolosako kiroldegira joaten dira.

Ezagutzea OSO esperientzia aberasgarria da

A: Zer nolako harre-
ra egiten zaizue kalean?

J.L.: Esan bezala ar-
zoak izan ditugu tarteka,
baina orokorrean jendeak
oso ongi hartzen gaitu.

Kaleko jendeak normalean ez du adimen urritua ezagutzen, eta orduan sortzen da kezka eta beldurra. Behin ezagutu ondoren hasten da ulertzen eta orduan oso esperientzia aberasgarria izaten da. Beste gai askotan bezalaxe, kasu hauetan ere horrelako gertuko personaren bat ez izan arte, jendearengan ez da arazoarekiko sentsibilitatea pizten.

A: Etxea konpontzen ari zare-
tela ikusi dugu...

J.L.: Bai, orain dela bi urte hasi-
tako lanei hilabete bonetan bukae-
ra ematea espero dugu. 200 milioi
pezetako lanak izan dira. Egoitza
eraberritu dugu, baina eraberrit-
zearen helburua pertsona hauen
bizitzan normalizazio biderantz
beste aurrerapauso bat ematea izan
da gure helburua. Lehen erresiden-
tzia itxura zeukan etxeak, hau da



Joxe Lizaso zuzendaria

korridore baten alde banatan be-
reiztutako gelaz osatutako etxea
zen. Orain berriz, bata besteari its-
atsita dauden etxetxoak egin ditu-
gu. Etxetxo bakoitzean hainbat la-
gun bizi dira, eta bertan euren lo-
gelak, sukaldea, komuna eta egon-
gela daukate. Horrek intimitate
handiagoa izaten laguntzen die.
Begiraleak, hala ere, beraiekin
daukate, baina nor bere etxean
egonda, begiraleei etxeko gauzak
egiten laguntzen diete, eta nork bere
ikutu pertsonala eman diezaioke
etxeari. Horixe izan da, hain zu-
zen ere, lanen helburua.

Familiak hasieran beldur izaten dira

A: Familiak nola har-
tzen duten euren seme-
alabak hemen eduki be-
harra?

J.L.: Hasieran norma-
la den bezala, kezka han-
diak izaten dituzte. Bai-
na berehala konturatzen
dira egoitzan etxean bai-
no askoz ere errazago egi-
ten dutela aurrera. Harri-
tuta gelditzen dira etxean
egiteko gai ez ziren gau-
zak hemen egiten ikustea.
Eta pozik daudela ikusi-
ta, beraiek ere ongi senti-
tzen dira. "Ni bizi naizen
arte nerekin edukiko dut"
pentsatzen dute guraso
askok, eta gero bat edo
beste gaisotu edota hil on-
doren, egoitzera ekartze-
ra premiazkoa izaten
dute. Dena den, ikuspegi
bori ere aldatzen ari da.
Gu profesionalak gara eta
programa ezberdinak
dauzkagu: kasu batzue-
tan euren etxe iraunkorra
bilakatzen da egoitza,
baina beste batzuetan

egunean zehar bakarrik edota den-
boraldi batzuetan egon daitezke gu-
rekin familiak atsedean bar dezaten,
orduan etena ez da hain handia
izaten.

Gaur egun hogeiren bat adimen
urritu daude Gipuzkoan horrelako
etxeetan sartzeko zain, eta kopuru
handia ez iruditu arren, Joxek dioen
bezala, pertsona bakoitzak arre-
rezia behar izaten du, eta premia-
zkoa batzuetan. "Jende askok Dipu-
tazioko etxe batean gaudela bai, bai-
na guri buruz ezer gutxi dakite he-
rrian bertan" dio, "dena den, hau
erakunde bat izateaz gain, hemen
personak bizi direla, eta hemen bizi
bitartean beraiek ere zizurkildarrak
direla ezagutzera ematea garrantzi-
tsua da guretzat". Horixe izan da,
hain juxtu, elkarrizketa honen as-
moa.

Baserriko emakumearen onespena helburu

Estatutu juridikoa da beren aldarrikapen nagusia

Otsailaren 3, 4 eta 5ean egiten ziren emakume nekazarien topaketak Gaztelun COAGek, Espainiako nekazari sindikatuen bilguneak, antolatuta. EHNE sindikatuko emakume baserriarrek ere bertan izan ziren. Euskal Komunitate Elkartearen 12.400 nekazari eta abeltzain daude gaur egun. Kopuru honen laurdena osatzen dute emakumezkoek. Nekazal ustiapena euren kargu duten emakumeen portzentaia %18'6koa da. Hona hemen, bestalde, zer dioen Alsaziako esaera zahar batek, Gazteluko topaketetako ideia nagusienetako baten adierazle: "Aita hiltzen bada, familiak sufritu egiten du; ama hiltzen bada, familiak ezin du existitu".

Gaztelun bildutako emakume baserriarren helburuetako bat elkarren berri izan eta esperientziak trukatzea izan zen, izan ere, emakumezkoek baserrietan lan handia egiten duten arren, beren egoera errealari buruzko ezezagutza handia da gizartean oro har. Egoerak oso ezberdinak direla ikusi ahal izan zuten lehenengo eta behin: ohiko nekazari familietan emakumezkoak zein gizonezkoak egiten du lan, baina emakumearen lana laguntza gisa hartzen da; eremu industrialetan gizonezkoak bere eguneroko lan ordaindua baserritik kan-



Emakumeek esperientziak elkar trukatu zituzten

po egiten du normalean, eta emakumea baserriko eta etxeko lanetaz arduratzen da; badira, halaber, baserrian lan egiten duen gizonezkoaren eta kanpoan egiten duen emakumearen kasua, azkenik, biek kanpoan lanean dihardutenen adibidea aipatu behar da, hauek bizileku gisa erabiltzen dute baserria.

Egoera zibilaz
aldatuz gero,
kitto

Aldi berean, emakume hauek ez dira normalean baserria eta ustiape-

naren jabe izaten, eta gainera, eskola, osasun zentru eta bestelako zerbitzu ezaren ondorioak jasan behar dituzte gizonezkoek baino neurri handiagoan. Ez dute izaten gutxiengo babes sozialik: ez elbarritasun pentsiorik, ez gaisotasun edota amatasun bajaldirik. Oso emakume gutxi kobratzen dute jubilazioa, eta emakume baserriarrek egoera zibilez aldatzen duenean, alegia, dibortziatu, banandu edota alarguntzen denean, ez zaio inolako eskubide ekonomikorik aitortzen. Dena den, eta aipaturiko egoera gairatzeko aurrera pausoak emanez, Gaztelun emakume baserriarrek adierazi zu-

Lizaina

KIROL JANTZIAK

Ama Kandida etorbidea, 6
Posta kutxatila 110 - ☎ 59 44 47
ANDOAIN

JOSEBA
Aitzariak

KALETXIKI 6 ANDOAIN
FAX ETA TELEF. 59 07 61



Lan handia egiten dute emakumeak baserrian

tenaren arabera, emakumezkoek nekazal garapenaren alde egin dute apostu. Era berean, ez daude ados Europako nekazal politikak ezarritako irizpide nagusiekin, alegia nekaritza turismoa eta beste baliabide batzuen bitartez, hirugarren sektorerara hurbiltzearekin. Beren ustez nekazal garapenak nekazaritzari eta ganaderitzari lotuta egoten jarraitu behar du.

Estatutu juridikoa

Baserriko emakumearen estatutu juridikoa izan zen Gaztelun egin zen aldarrikapenik nagusia. Beren helburua emakume baserriarraren eskubide legalak beste langileen lan baldintzen mailan jartzea da. Horretarako zenbait neurri zehatz bilduko dituen aldarrikapen agiri bat ari dira osatzen. Horien artean aipagarriena nekazal ustiapenaren eta gestioaren elkar banatutako titularitza. Era horretan gestioan nahiz zuzendaritzan partaidetza zuzena izango luke emakumeak. Britainia Handia, Belgika, Italia eta Frantzia Estatuak bakarrik aitortzen diote gaur egun aipaturiko eskubidea emakumeari. Dena den, beste herrietan existitzen den hutsune legalari arazo kul-

turalak gehitu behar zaizkio, izan ere emakumea bera da gehientsuenetan bere lana behar bezain beste baloratu ez, eta aldarrikapenik egiten ez duena.

Ez gaisotasun, ez amatasun bajaldirik

Segurantzaz sozialari dagokionez, baserriko emakumeak normalean ez du kotizatzen, bere senarraren alde egin nahian, gehienetan nekazal jardunak ez baitu biek kotizatzekeo adina ematen. Ondorioz, emakumea babesik gabe geratu ohi da; ezin du gaisotasun edota amatasun bajaldirik kobratu. Egoera hau are larriagotzen omen da, kontuan hartuz gero, askotan emakumeek baserrian euren gaitasun fisikoaren gainteko lanak egiten dituztela, eta nahikoa gazte izan ohi dituztela desgasteak, eta hezurretako beste gaitz batzuk.

Eskubide ekonomikoek dagokienez, zera eskatzen dute: baserrian, normalean, gizonzkoak nahiz emakumezkoak euren ondasun guztiak elkartu ohi dituzte baserria aurrera ateratzeko. Beraz, irabaziak ere era legalen bien artean banatu beharko liritekeela. Era horretan, bereiztu, dibortziatu edota alargunduz gero, emakumezkoak bere baliabide propioak izango lituzke.

Gizarte osoaren aldarrikapena izan beharko luke

Azkenik, Gazteluko iritzi nagusia izan zen, oso garantzitsua dela, baserriaren egoera orokorrean, eta emakumearena bereziki, gizarte osoan ezagutzera ematea, izan ere nekazaritzak gizartearen eta ekonomi garapenaren zutabeetako bat izaten jarraitu behar badu, gizarte osoak lagundu beharko du baserriko emakumearen garapenaren alde egiten.

fotocolor
ERREBELATUA ORDU LAN

Ezkontza, Jaunartze, e.a. en erreportaiak.
Lan Industrialak

Kodak
EXPRESS
SERVICIO DE CONTROL DE CALIDAD

Jose Ignacio Unanue
Juan Bta. Erro 1 - ☎ 59 43 32
20.140 ANDOAIN



HERCULES
Aseguruak ARGENTARIA
Amaia Kortajarena
Bulandegi bidea, 6 - Telf. eta Faxe 69 37 34
ZIZURKIL

ERNIIBIDE
JUAN CARLOS ARICETA
ZURGINDEGIA
-Erreformak oro har
-Neurrira egindako armairuak
Agaraitz auzoa, z/g - ☎ eta Faxe 69 26 75
BILLABONA

Korrika jendetsua izan da bederatzigarrena

“Korrikak, zorionez, AEK gainditzen du”

Hilaren 17an ekin zitzaion lasterketari Nafarroa Beherako Donibane Garazitik, eta Arabako hiriburuan amaitu zen joan den igandean 2.150 kilometro egin eta 300 herri zeharkatu ondoren. “Korrikak, zorionez, AEK gainditzen du” adierazi zuen prentsaurrean Anjel Olalde aurtengo Korrika arduradunak, eta hala da, izan ere ehundaka pertsona dira herri eta auzoetan antolaketa lanetaz gain, lasterketan eta antolatu ohi diren ekintzetan parte hartu dutenak. Ekitaldi herritar honek euskararen aldeko kontzientzia indartzen laguntzeaz gain, AEK-k bere lana jarraitu ahal izateko beharrezkoa duen dirua eskuratzea du helburutzat.



San Jose egunean goizeko lauetan zeharkatu zuen Korrikak Andoain, handik Adunara jo, eta Zizurkilen barrena iritsi zen Billabonara ordu erdi geroago. Hamar kilometro egin zituen guztira Beterrin. Azkenengo urteetan bezala, ordu txikietan igaro zen gure herrietatik lasterketa, hala ere, eta Joxemi Aranburuk Andoaingo AEK-ko koordinatzaileak adierazi digunez, harrera ezin hobea egin zaio, eta pozik agertu du herritarren parte hartzea ikusi ondoren. “Korrikak hartu da dagoeneko bere lekua herrian eta herritarrek gogoz eta naturaltasunez hartzen dute parte; goraka egiten ari da, zalantzarik gabe”, gaineratu digu.


Manuel Larramendi ikastolak, bertako irakasleek, ikasleek; La Salle-Berrozpeko ikasleek; AEK-ko ikasleek; herriko Ontza, Agustin Leitza, Santa Krutz eta Karrika elkar-tee; Euskalduna futbol eta saskibaloit taldeak, Euskalduna mendigoizaleek, txirrindulari eskolak, Leitza mendiko txirrindulari taldeak, Leizaur zikloturistek eta Lei-

tzaran eskubaloit taldeak; Manuel Larramendi Bazkunak, eta Ondarreta Leitza ikastetxeak erosi dituzte aurretik kilometroak Andoainean.

Udalean

Hauek gain aipatzekoa da alderdi politikoei kilometroa erostea eskaini zaien lehenengo aldia dela; Herri Batasunak orain arte bezala parte hartu du lasterketan, eta PSE-EE taldeak berriz, lehenengo aldiz erosi du kilometroa. Udalari dagokionez, Euskara Batzordeak onartu ondoren, Gobernu Batzordeak ez zuen kilometrorik erosi nahi izan, baina azkenean, ezezkoa atzera bota eta onartu eta erosi du kilometroa Andoaingo Udalak.

Billabonan inoiz baino partehartze handiagoa



Aduna eta Zizurkilgo Udalek beste aldi batzuetan bezala erosi dute kilometroa. Eta Billabonan berriz, Zunbeltz, Iratzar, Uxo Toki elkarteek, Amasako Gazteak taldeak, euskaltegiak, Dantza taldeak, Armatoste taldeak eta Udalak berak erosi dituzte kilometroak. Billabonan bereziki, parte har-

zteza aurreko urteetan baino handiagoa izan dela adierazi digute bertako batzordekoek, eta halaber, herriko talde gehiagok erosi dituzte kilometroak.

Ekitaldiak

Korrikaren inguruan Andoainen nahiz Billabonan antolatu dituzten ekitaldiak ez dira oso ugariak izan, bai ordea, jendetsuak. Andoainen bezperako afarian 250 lagunek hartu zuten parte frontoiko afarian eta Billabonan berriz, beste inoiz ez bezala, 180 lagun inguru bildu ziren. Gau hartan Billabonan lasterketa iritsi bitartean eta berotzen hasteko edo, ilargi beteren aitzakiaz, Loatzo mendira igo ziren gutxi batzuk. Ohizko Korrika Txikiak ere antolatu zituzten bi herrietan eta ikastetxeetako haur ugari egin zuten korrika lekukoaren atzetik.



Azkeneko hiru alditan ilunpean



Txandalik gabe ere korrikan

Leloa

Bernar Etxeparek orain dela 450 urte egindako esaldiari "Euskara jalgi hadi plazara, dantzara... mundura", gaurkotasuna eman nahi izan dio Korrikak aurtan. Gainera, Korrika arduradunek adierazi dutenez, esanahi bikoitza dauka mezuak: "Bate-tik, euskaldunei zabaldu nahi zaien mezua, hau da, euskara kalean, tabernetan, etxean eta toki guztietan erabili beharra dagoela; eta bestetik, erdaldunei zuzendu nahi zaien mezua; alegia, euskara ikasi eta ondoren erabil dezaten".

Kontzientzia zuzpertz eta baliabideak eskuratu

Berrogeita hamar milioi inguru bildu zituen Korrikak aurreko edizioan eta aurtan ere horrenbeste bilduko dutela espero dute. AEK-k argi adierazi du diru horrek bultzada bat emango diola bere proiektuari, baina erronka guztiak bete ahal izateko ez dela nahikoa izango: "Kontuan hartu behar da didaktikan urrats berriak eman behar ditugula, jende berria hurbiltzen ari zaigula, metodologian aurrerapausoak eman behar ditugula. Bestelako dirulaguntzak behar ditugu, eta hori erakundeen egitekoa da".

Azkenik, aipatu Mikel Laboari eskaini diola Korrika-9k omenaldia eta bide batez, gainerako euskal kantariak egin duten lana ere omendu nahi izan dute. Hona hemen Laboari bere kantuez osatutako liburua argitaratuz egin zaion omenaldiaren zergatia: "Kanta herrikoiak berreskuratū ditu eta kantatzeko era berriak planteatu ditu. Gainera, eta garrantzitsuena, beste kulturekiko begirunea gorde du, eta beste herrietara zabaldu du euskara".

Maria Luisa Irizar korrikalaria

Espainiako txapeldunen historian, bera da lau titulu dituen emakume bakarra

Egun euritsu nahiz eguzkitsuetan, zangoak arin, gorputza indartsu, atsedetik hartu gabe, markak hobetuz, beti aurrera. Hori da puntapuntako korrikalariaren sasoia. Anoetako kiroldegian hainbat eta hainbat korrikalarien artean Maria Luisa nabarmentzen da. Korrika baino hegan dabilela dirudi. Eta gaur arratsaldekoa entrenamendua besterik ez da izan.

Denborak aurrera egiten du eta urte asko bete ditu Maria Luisak proba handienetako lehen postuetan. Gipuzkoatik Euskadira, Euskaditik Espainiara, txapel asko eta denbora paregabeak. Eremu hauetatik kanpo ere leku asko ezagutu ditu lasterketei esker eta munduko emakume

onenen artean dago bere izena.

Hala ere ez da beti horrela izan. Proba gogorrenak airean irabazteko indarra eguneroko jardunaz lortu du. Ibili eta ibiliz, piskanaka urratsak emanez txapelduna izatera heldu da. Denboran hamasei urte atzera eginez gero, Anoetako pistetan egindako azken postuak gogoratzen ditu Maria Luisak irribartsu.

Gimnasia gustoko zuen eskolan eta lagunek beti esaten zioten oso azkarra zela eta korrika egiten hasi behar zuela. Aita ere korrikalaria zuen. Aitaren jardunak eta lagunaren esanak bero-bero egin eta kilometroak egiten hasi zen. Lehenengo urtean lasterketa herritarrak korritzen zituen, baita Anoetako proba askotan parte hartu ere. Urtebete besterik ez zuen egin jendeak ezagutzen ez zuela. Hurrengo urtean Gipuzkoako txapelduna izan zen eta geroztik, izan dituen garaipen asko, gogoratu ere ez ditu egin.

Donostiakoa, maratointan gogokoena.

Donostiako maratonia aipatzen du beti Maria Luisak. Korrika lau urte bakarrik zeramatzanean irabazi zuen lehen aldiz maratonia. Hurrengo urtean ere garaipena bereganatu zuen baina hamar minutu gutxiagorekin heldu zen helmuga-


ra. Gaur egun duen denbora, oso urrun geratu da lehen saio hartatik baina ez da gaindiezina, korrikalari honentzat urteroko asmoa izaten baita denbora hobe egitea. Azken Donostiako maratonia gogoratuz gero, aspaldian egon den probarik gogorrenetakoa izan zela esaten

dute. Euriak eta haizeak, hotzaren laguntzaz, ederki jotzen zuen eta korrikalari askok ezin jarraituz, kalenbreak zangoetan, kale ertzetan gertzen ziren.

Maria Luisarentzat, elurra eginda ere, ez dago Donostiako maratonia bezalako probarik. Ibilbidea aparta, oso polita izateaz gain, jendearen harre- ra izugarria dela dio. Jendearen animo eta oihuei erantzunez zangoak azkarrago joaten zaizkio eta burua goian edukitzen laguntzen dio dudarik gabe. "Horrelako proba luze eta gogorretan, buruak zeresan handia du" esan digu: "Berrogeita bi kilometro egin ondoren azken metrotan gorputzari gelditzeko agindua ematen badio, gelditu egiten da. Ez dago jarraitzeko modurik. Azken ehun metrotan erretiratu direnen kasuak ezagutzen ditut".

Gora-beherak

Garaipenak beti dira ongi etorriak. Halere, garaipenen atzean eguneroko bizitza gordetzen da eta hau, maiz, oso gogorra izaten da, baita txapeldunentzat ere. Garaipenek aurrera egiten lagundu badiote ere, gauzak okertu zitzaizkionean irtenbidea bilatzea oso zaila egin zitzaion.



Egunero entrenatzen du hutsik egin gabe

Azken urte honetan oso sendo ikusi badugu ere, urte t'erdiz depresioak jota egon zen eta ez zuen burua altxatzeko modurik ikusten. Espainiako federazioarekin arazo asko izan zituen, bi olinpiada galduz. Lehenengoa, Seulekoa, eskatzen zuten marka minimoa egin eta gero, hiru hilabetetan prestatzen ibili ondoren, bi aste falta zirela, ezezkoa eman zioten. Mariano Aro eta garai hartan zeuden onenak eraman zituzten, baina berarentzat ez zuten lekurik egin. Bigarrenean, Bartzelonakoan, suert txarra izan zuen, neumonia izan ondoren, ez baitzuen prestatzeko astirik izan.

Espainiar federazioak ez dio erraztasun handirik eman Maria Luisa Irizarri.

Gertaera hauek eragin handia izan zuten ondorengo depresioetan. Garai berdinean, bere senarra eta biak langabezian geratu ziren eta oso une larriak bizi izan zituzten. Ez zuen inoren laguntzarik eta baserriko lanetan jardun zen denbora hobeak etorri zain.

Dena den, gauzek hobera jo dute eta berriz ere punta-puntakoen artean dago Maria Luisa. Korrikalari onena izatea ez da nahikoa bertatik bizitzeko, baina eguneroko lana ez da arazoa entrenamenduetarako. Egunero, hamarrak aldera, kilometro mordoska egiten ditu. Bazkaritara amarengana joaten da eta ondoren ordu erdiko kuluska egin ondoren, ardiak zaintzera ateratzen da. Arratsan, hauek gorde eta gero berriz ere korri egitera joaten da. Eguna leher eginda bukatzen duela galdetu diogunean, ez dela hainbesterako esan digu. "Uda partean okerragoa da. Belarretan jardun behar da eta neke handiarekin".

Sukaldari ona izango litzateke.

Ordu asko dira kilometroak egiten. Asti gehiegi ez beste edozertarako. Korrikalari izan ez balitz, sukaldaria izango litzatekeela esan

digu. Penetan gelditu izan da baina gauza batzuetara dedikatzeke, beste batzuk utzi behar direla eta ezin dena egin. Hala ere, poztasun handia ematen dio korrika aritzeak, edozein gora-behera edukita, kirola egitearekin bakarrik, askotan ahaztu egiten baitzaizkio.

Gora-beherak, alde onak eta txarrak. Gehien kostatzen zaiona forma hartzea omen da. Askotan egunak pasatzen dira gorputzari buelta eman ezinik. Badirudi gorputza ez dela berera itzuliko. Baina zerbait gustokorik badu, gorputza martxan jartzean, erraz doala nabaritzea du. "Ederra izaten da arintasun hori. Gehixeago emango nioke eta ezin, gehiegi indartzea ez baita ona. Zoragarria da hori sentitzea".

Hamasei urte korrikalari onenen artean

Denbora asko da korrika eta urte pare bat gehiago baino ez dituela egingo esan digu. Hori bai, ondo aprobeztatuak izango omen dira. Datorren apirilaren bederatzian, Munduko Txapelketa dago Grezian eta maratoi gogorra bada ere, gogor dabil kilometroak egin eta egin. Hurrengo hilabeteetarako ere, proba asko ditu buruan.

Forma fisikoa, janaria... "Tokatzen



Anoetan entrenatzen

dena hura" da bere jan-neurria. Karbono hidrato asko eta entrenamenduen ostean pastel bat edo beste, eskertzen dio gorputzak. Nahiz korrikalari aparta izan, besteon bizitzaren tankerakoa egiten du Maria Luisak, gozo eta guzti, milaka kilometro arinarin eta lehenengo postuan egiteak berezia egiten badute ere. Ospe handia du baina horrek ez dio ezberdin sentiarazten. Egunero, ezagutzen ez duen jende asko agurtzen du kalean eta gustora. Gurekin ere solasaldian aritu denean, korrikalari ona baino zerbait gehiago dela erakutsi digu. Barre artean igaro dugu elkarrekin igarotako denbora, eta bukatu ondoren pastel bat jatekotan izan gara, baina guk ez dugu entrenamendurik egin eta haseran ideia ona iruditu zaiguna, hurrengo baterako utzi dugu, ea gu ere korrika hasten garen.

Kasinoa izan zen Trianon zaharra


Jende printzipala etortzen zen kapitaletik

Oraingo Trianon etxea dagoen lekuan (Kale Berriko 36. zenbakian, Maiza zinemaren ondoan) izen bereko eraikuntza elegante bat bazela ondo gogoan dute oraindik Andoaingo zaharrenek.

Inguru hartan bizi direnek hamaika aldiz entzun dute hara jende inportantea etortzen zela kapitaletik. Zertara ordea? Jokuan aritzera. Trianon zena kasino sonatua izan baitzen garai batean.

Hari buruzko istorio zaharrak Aiurriara ekarri nahi eta, batean eta bestean aritu gara ate joka; baina ez dugu topatu Trianon kasinoa izan zen garaiari buruzko berri emateko moduko inor. Batzuren batzuk joku etxea artean oso gazte zirela itxi zela esan digute, eta hura desagertu ondoren jaio zirela beste batzuk. Udaletxeko artxiboetan ere apenas dago Trianon zaharra kasino zeneko daturik, orri honetan ageretzen den argazki zahar hau eta honen paretsuko beste erretratu pare bat izan ezik.

Zehazterik izan ez dugun arren, Kasinoa mende honetako bigarren



Trianon kasinoa jendez inguratuta

eta hirugarren hamarkada inguruan zabaldu zela esan liteke; eta ez zituen urte asko egin lanean, gerra lehertu zenerako hura itxita baitzegoen. Birtarte horretan, ordea, sonatua izan omen zen oso, eta tranbia hartuta jen-

de ugari etortzen omen zen inguruko herrietatik gurera etxean gordetako xoxa apurrak jokoan jarri eta aberats bihurtzeko esperantzan. Zenbati egin ote zitzaion, baina, poltsikoan zuloa?

Jone Larrañaga



XIXORI

BELARDENDA

DIETETIKA ZENTRUA
KONTSULTA NATURISTA

Ondarreta, 9 - TELF. 59 01 99 - 20140 ANDOAIN



AUTOEN MEKANIKA OROKORRA
ZABALAGA TAILERRAK

Ama Kandida Etorbidea. DENAC Poligonoa, 203. Pabeloia
Telefona 30 01 69 ANDOAIN



TXERRIKIEN
BANATZAILE
ETA EKOIZLEA

ENPRESEN ZENTRUA

Ama Kandida z/g - 307. Moduloa - 592923
ANDOAIN

Orremendi
Kirolak

AUKERA ZABALA
KIROL ARTIKULUETAN



JUAN BAUTISTA ERRO, 2 - TELF. 59 18 06 ANDOAIN


Andoain

Inquitex: fibra sintetiko ekoizle

Iaz termo-isolagailuak egiteko fibrak ekoizten hasi ziren

Gutxi dira dagoeneko artile hutsez eginiko jantziak soinean daramatzatenak. Nahi izanez gero ere, nekez eraman ahal izango genituzke guztiok halako jantzirik soinean, ez baitago munduan horretarako hainbeste ardi. Dena dela, era batean edo bestean, gaur egun gehientsuenok fibra sintetikoaz eginiko jantziak daramatzagu. Orain dela 80 urte laborategian aurkitutako *nylon* ezagunari zor zaio aldaketa. 1952. urteaz geroztik Andoainen Inquitex enpresak, hain zuzen ere, fibra sintetikoak ekoizten eta komertzializatzen ditu. Gaur egun 226 langile inguruk egiten dute bertan lan. Administrazio Zuzendaria den Juan Luis Azpiazu eta Jose Mari Sastre zuzendari gerentearekin hitz egin duguhango berri izateko.

Laborategian lortutako lehengai kimikoen bitartez ekoizten dituzte oihalak Inquitexen: poliesterra, likra eta beste batzuk. Hain zuzen ere arropen eta beste oihal gai batzuetako etiketetan, tapizetan, barruko jantzietan, haurroihaletan, kotxeetako tapiztegian eta abar ikus ditzakegu oihalaren osagai natural eta artifizialen nahasketa portzentaia. "Gaur egun fibra sintetikorik gabeko mundua nekez imajina daiteke" dio Azpiazu jaunak, materialearen beharrezkotasuna azpimarratuz. Bere garrantziaz jabetzeko adibide bat jarri digu: II Mundu Gerra garaian hasi ziren AEBetan kristal antza hartzen zituzaien emakumezkoentzako galtza luzeak egiten, fibra sintetikoa erabiltzen zuten horretarako. Gerra



Fibra sintetikoak naturalen ordez

egunetan emakumezkoek galtzak ematen zizkioten estatuari hauek soldaduentzako jausgailuak egin zituzaten. Ez dago esan beharrik AEBko emakume abartzaleek ezbairik gabe sakrifikatu zituztela zeuzkaten galtza guztiak.

Berrikuntza eta ingurugiroa

Urte hauetan guztietan Inquitex oihalgintzarekin erlazionatuta egon bada ere, iaz urrats berri bat eman eta beste gai bat ekoizten hasi zen: termo-isolagailuetarako laminak, hau da, hozkailuan edo beste edozein tokitan isolatuta edukitzea komeni diren janariak gordetzeko ontziak egiteko erabiltzen direnak. Materiale hori birziklatu egin daiteke. Azpiazuren esanetan ekoizpen berri honetan esperantza handiak dauzkate, izan ere Europako agintariak PVC gai toxikoa erabiltzea galerazi zuten geroztik, beste era bateko fibra batzuk erabiltzen hasi beharko dira, eta Inquitexek

merkatu hori bereganatu nahi du. Alemanian saltzeari ekin dio hasteko, izan ere PVC-z eginiko gaiak inportatzea debekatu dute bertako agintariak. "Jende asko kezkatzen da gure tximinietatik kea ateratzen delako" dio ingurugiroaz galdetu diogunean "baina airean ikusten den hori ez da kea, lurrina baizik, hau da, ez da kutsagarria".

1952. urtean hasi zen Inquitex Andoainen lanean. Geroztik animalien oihalen imitazioak egin dituzte, batez ere: moe, angora eta abar Europa eta AEBra esportatuz. 1960. urtean ehungintzarako haria egiteari ekin zioten barruko jantzi eta tapiztegirako batez ere. 1980. urtean tindatutako fibra moztua ekoizten hasi ziren tapizak egiteko batez ere. Esportazio gune garrantzitsuenak herri arabiarak dira kasu horretan. 1991. urtean kotxeetarako tapizak egiteko poliester fibra egiten hasi ziren, Europara esportatuz.

Zinegotzi izan nahi al duzu?



Aurtengo udaberriak ez du aurreko hiru urteetakoaren antzirik izango, itxura denez. Oraingoan ez ditu soroak

eta bidertzak bakarrik loratuko; paretak, espaloiak eta kaleak ere jantziko ditu, iragarki politikoz izango bada ere. Buzoietan ez dira supermerkatuen edo igeltseroen eskaintzak bakarrik jasoko. Han eta hemen izango dira nonahi esloganak, hautagaien erretratoak, eta talde bakoitzak herriarentzat dituen proiektu interesgarrien berri eman-goduten paperak.

Aurrekanpaina politikoa baikaude. Izan ere, Udal hauteskundeak gertu egoteak hainbat gauza aldatzen ditu herrietan lau urtean behin. Batetik, guztien begi bistan azaltzen direnak: kanpainako kartelak, mitinak eta propagandarako metodo guztiak. Baina bestetik, hain agerikoak ez direnak ere badaude: hautagaien zerrendak osatzea, adibidez. Badirudi zenbaitetan gehiago kostatzen dela alderdi baten zerrenda osatzea, hauteskundeetan aurkeztu beharreko programa egitea baino. Daudenak nekatu egiten dira, eta egongo direnak aurkitzea nekeza suertatzen da.

Politiko bokazioko oso jende gutxi dago gure artean. Bada hori akats bezala jotzen duenik, baina nik behintzat hala nahiago. Politiko bokazionalak, udaletxeetan, onura baino eragin kaltegarri gehiago

sortzen dituzte gehienetan. Prepotentzia eta jauntxokeria, esate baterako. Normalean, zirkustantziek edo halabeharrak sortutako alkate eta zinegotziek bestelako jokamoldea erakutsi ohi dute, etikoagoa nolabait esateko. Normalean. Ni behintzat politiko amaterren alde beraz. Baina alkate edo zinegotzi izateko prest dagoen jende gutxi izateak ere baditu bere ondorio txarrak: besteak beste, lau urtean behin bati eta besteari negar egin behar izatea, zerrendeteko batean aurkez dezan bere burua.

Eta ez da erraza. Duela hamabost urte zegoen xarma edo ilusioa ("boterea herriaren esku", "erabaki dezagun gure geroa") apurru egin da neurri batean. Zerrenda independenterik apenas dagoen. Maila nazionalako politikak (makropolitikak, alegia) inoiz baino gehiago eragiten du herrietako politika txikian. Beste alde batetik, gaur egun jakina da Udal batek proiektu ilusionagarrienak edukitzea ez dela nahikoa. Dirua behar da, eta Udaletan oso diru gutxi dago gastatzeko. Udalbatzakoa lan zikina da, esfortzu handikoa eta gratifikazio eskasekoa.

Zerrendakidearen ehiza dator kigu, beraz, udaberri honetan. Ez dakit inoiz zuri horrelako proposamenik egin dizuten. Hala ere, hobe duzu zure burua galdera honetara prestatzea, badaezpada ere, udaberri arraro honetan inork egingo ote dizun: "Zinegotzi izan nahi al duzu?"

Josu Landa
Kazetaria Asteasu



"Denboraren gibelean" BIDEOKASETA.

Zuzendaria: Mirentxu Purroy.

Aktoreak: Patxi Bisquert, Miren Aranburu.

Kalifikazioa: Denontzat.

Argitaratzailea: Kultura Saila. Goibe S.L.

Joan ziren garai haietako oroipen gazi-gozaok. Iruñeko karrika estuetan, Iruñeko Gaztelu Plaza maite horretan zenbat, hainbat, horrenbeste, hainbeste kontu gertatu ziren gure herriaren urte ilun haietan, Mirentxu Purroy murgildu da oroitzetan eta minaren alboan, aurkitu du itxaropena.

Iruñean gaude, erresuma zaharren hiriburuan. Urte zailak eta gogorak dira, 50eko hamarkadan gaude. Bizitzak, tarteka, ez dauka kolorerik. Baina etxe batean, ezkutuan, maistra batek bizitzaren eta jakintzaren pasioa erakusten die neska-mutil talde bati. 62 minututan Mirentxu Purroyek samina eta esperantza erakusten digu.


LEICARUA

LANBIDE EZBERDINEN
ARTEKO KOORDINAKETAK

GASA ETA BEROGINTZA

KALE NAGUSIA, 59 - ☎ 59 38 44
ANDOAIN

- ITURGINTZA
- GASA
- BEROGAILUAK
- ELEKTRIZITATEA
- IGELTSARITZA



ZuBi

AUTO ESKOLA

Ernio bidea, 2 - ☎ 69 06 93 - ZIZURKIL

Kirol santua

Kirolari eskeintzen zaion status soziala, orokorrean instituzioek eta pertsonak ez dute sekula zalantzan jarri ezta eztabaidatu ere. Horrela, kirolak zalantzan jarri ezin den ospea dauka. Edozein kirol egiteak edonor bihurtzen du garrantzitsu: osasun mental eta fisikoaren seinale da eta taldeko osasun soziala indartzen du. Kontrako zeinua duten erreximen totalitario guztiek esaterako, kirola ariketa eta espektakulo gisa azpimarratu dute. Komunikabideak (prentsa, irati eta telebista) eguneroko bizitzan sortzen diren arazoei buruzko iritzia eta eztabaida "desdramatizatu" sortzeko kirolaz baliatzen dira. Kontsumoko gizariek kirol publizitate eta objetuei esker lortutako etekinak azpimarratzen ditu. Ideologoak sortzen dira: arrakasta duten kirolariak sekula ez dira eztabaidagai izango, gaur egun bizirik dauden heroe bakarrak dira, direna izatea euren lorpen pertsonala da eta bere milioitako supersoldata eta superkontratuak merezi dituzte. Kirolak giza-sare osoan eragiten du eta ekiporen batekiko identifikazioak talde batenganako elkartzeko soziala esan nahi du: errealia ez den identifikazio sinbolikoa, hain zuzen.

Kirolari eskeintzen zaion gehiegizko ospe honegatik ez dut protesta egiten. Baina sekula zalantzan jartzen ez den kirol arrakastak beste lanbide batzuk baliozkoak eta onak direla ere ez digu ahaztarazi behar. Orain, beste era bateko edozein arrakasta sozial harreman sozioekonomiko eta politiko arraroekin erlazionatzen da. Kirola, aldiz, garbia da. Azpiegiturako arazoetan ere antzerakoa gertatzen da. Estadio edo kiroldegi berri bat egitea pentsatzen bada, sekula ez da eztabaida politiko eta sozial bat egingo. Museo bat edo azpiegitura kultural bat eraikitzen denean, denek ideologiaz, merkadotekniaz, kolonialismoz eta edozertaz hitzegiten dute.

Gutxiengo baten partaide naiz. Ez zait kirola gustatzen, ez ariketa gisa ezta espektakulo moduan ere. Kirolari eskeintzen zaion gehiegizko garrantzia honi buruz erreflexio bat egitea bakarrik izan da nire asmoa. Badirudi kirola, ekintza sakratutzat joz, giza existentziari zentzua eskeintzen dion bakarra dela.

Jose Julian Bakedano
Eraz
Durangaldeko astekaria.
Martxoak 3

Xabier Markiegi arartekoa

"HIRITARREI BEREN HIZKUNTZA ERABILIZ EGINGO DIEGU HARRERA"

Galdera: Zer iritzi duzu euskararen inguruan piztu den eztabaidari buruz?

Erantzuna: Nik neuk benetan txalotzen ditut herri honetan euskararen berreskurapenaren alde era demokratikoan bitarteko eta ahalegin pertsonaletaz baliatuz lan egiten duten talde guztiak. Eta prozesu horrek pizten duen aldeko eta kontrako jarraiek alde batera utziz, hiritarren eta bi hizkuntzen artean era baketsuan garatu behar duela uste dut bene-benetan. Arartekoak, erakundea den aldetik, eurak eskatutako hizkuntzan egingo die harrera hiritarrei. Nire etxean, nire emaztea euskalduna da, eta euskaraz erantzuten ditu telefono deiak, eta ni, erdalduna naizenez, gazteleraz erantzuten dut.

egin Martxoak 5

OSABO
Etxebizitzaren salerosketa
Kale berria, 58 ☎ 69 08 94 BILLABONA

FOTO-BIDEO-ARGAZKI
BIKOITZ
KALE NAGUSIA, 19 behea
☎ 30 07 27 ANDOAIN
- Argazkiak errebelatzen ditugu
- Estudio argazkiak egin
- Karnet argazkiak instantean
- Ezkontza erreportaiak. Argazkiak, bideoak


AITZBELTZ
Arteta kalea, 1 eta 3
☎ 59 12 26 - Faxa 30 03 45
ANDOAIN

Ageltsaritza
M. USABIAGA
Leku eder Etxea - Elbarrena Auzoa
☎ 69 35 60 - 69 34 35
20150 ZIZURKIL (GIPUZKOA)

Hots, hots!

JAIOTZAK



ANDOAIN

- Jon Imanol Pinto Olano. Otsailak 16.
- Jon Rodríguez Enrique. Otsailak 17.
- Alex Caramelo Carrasco. Otsailak 21.
- Yaiza Vitoria Méndez. Martxoak 6.
- Iñigo Ibañez Santana. Martxoak 8.


BILLABONA

- Nagore Urkiola Osoa. Otsailak 15.
- Ivan Arevalo Redondo. Otsailak 16.
- Aiora Segurola Errondosoro. Otsailak 17.
- Nagore Kortajarena Rebollo. Otsailak 17.
- Erika Núñez Gómez. Otsailak 18.

ASTEASU

- Julen Sarasola Agirre. Martxoak 15.

EZKONTZAK



ANDOAIN

- Jesus M. Andonegi eta M. Pilar Martínez. Otsailak 25.
- Daniel Etxeberria eta M. Jesus García. Martxoak 11.

ZIZURKIL

- Diego Cortés eta Mari Carmen Gómez. Martxoak 11.

34



GOIAN - BEUDE

ADUNA

- Atanasio Mujika Ezeiza. Martxoak 4.

ANDOAIN

- Candido Aizpurua Otegi. Otsailak 24.
- Jose Esnaola Peñagarikano. Martxoak 3.
- Carmen Laera González. Martxoak 6.
- Juana Gernara Cantabrana Martínez. Martxoak 7.
- Jorge Enin Lasueta. Martxoak 8.
- Felipa Ortega Juarros. Martxoak 16.

BILLABONA

- Julio Narciso Fondón. Otsailak 16.

SUKALDE TXOKOAN



Añabel Inza
BEIBATEGI jatetxea
Zizurkil

ENTSALADA EPELA

Osagaiak:

- Ubaza
- Endibia
- Bitxalekak
- Aguakateak
- Azenario birrindua
- Oliba beltzak
- Baratxuriak
- Ganbak

- 1- Aipaturiko osagai guztiak ontzi batean jarri ganbak eta baratxuriak izan ezik.
- 2- Olio gordina, ozpina eta gatza bota.
- 3- Zuritutako ganbak baratxuriekin batera frijitu.
- 4- Frijitutakoa, beste osagaiekin batera ontzian bota eta entsalada eginda dago.

HONTZA BIDEO TALDEA

BIDEO ERREPORTAIK



EZKONTZAK
JAUNARTZEAK
BATAIOAK
OMENALDIK
JAIK
ETA ABAR
☎ 59 33 05
ANDOAIN

TRANBURU

agentzia

Aseguruak - Aholkularitza
PROFESIONALITASUNA NAGUSI

Kaleberria, 26 behea
☎ 59 08 14
ANDOAIN

winterthur



KALE BERRIA, 9 ANDOAIN TELF. 59 35 49

SALEROSKETAK

ANDOAIN

Idazmakina elektriko Oliveti ET pertsonal 55 bat salgai. Berria dago ia. 15.000 pezetan salgai. ☎ 59 02 59.

ZIZURKIL

Musika bateria salgai prezio onean. ☎ 65 37 58. Deitu 13.00-19.00.

ALOKAIRUAK

ZIZURKIL

Pisu bat daukat alokatzeko moduan. ☎ 69 17 30.

LANA

ANDOAIN

Zure apunteak/lanak ordenadorez pasa ditzaket. ☎ 59 41 76.

Goizez etxeko lanak egin eta ume bat zainduko nuke. ☎ 81 05 71. 12.30-13.30 eta 19.00etatik aurrera deitu.

Filologia duen irakaslea behar dut. ☎ 59 35 25. Txomin. Deitu: 13.00-14.30.

IKASKETAK

ANDOAIN

Enpresa zientzietan lizentziatuak klase partikularrak emango lituzke etxean: matematika OHO, LH, BBB eta UBI maila. Baita kontabilitate klaseak ere. ☎ 59 14 54.

Ingelesean diplomatuak klase partikularrak emango lituzke astean bi aldiz. 5.000 pezeta hileko. ☎ 42 88 55. Gauen deitu. Plazaola 9, behea.

BESTEAK

Euskarazko egunkari edo aldizkaririk baldin badaukazu etxean, edo euskal gaiei buruzkoak, eta inora eramateko ordua iritsi dela iruditzen bazazu, dei 30 07 33 telefonora as-teartetan 12etatik 14etara eta «Rikardo Arregi» Hemerrotekak erretiratuko dizkizu.

BETERRI: Ezer saldu edo eskaini nahi izango bazenu, ez zalantzarik izan, hauxe duzu zure txokoa. Eman iezaguzu informazio zehatz eta osoa, hartara, interesatua jakinaren gainean izango da. Bestalde, ez ahaztu! Inorekin harremanetan jarri nahi baduzu, hau duzu biderik egokiena.

MILIKOST

**LIBURDENDA
PAPERDENDA**

KALE NAGUSIA, 20 - ☎ 59 16 57
ANDOAIN

PATXINE JATETXEA



GURE BEREZITASUNA: EUSKAL
SUKALDARITZA ETA ETXeko POSTREAK

Errementari,1 - ☎ 69 10 25 - ASTEASU

Joxe Mari ITURRALDE

ZURGINDEGIA

Formika lanak, sarrerako eta
barruko ate mota guztiak eta
edozein zurgintza lan.

ADUNA - ☎ 69 20 81

Juan Bautista
ORMAZABAL

☎ 59 13 19
☎ 37 05 76

**PINTURA LANAK
ORO HAR**

Profesionalak gara

ALUSTIZA baserria
☎ 943 - 69031 20150 AMASA



**NEKAZALTURISMOA
J A T E T X E A**

MAPFRE
ASEGURUAK

ZURE
AURREZKIENTZAKO
MAPFRE
SUPERKONTUA

**ERRETENTZIORIK
GABE**
Xabin Mujika Tolaretxipi

Kale Berria, 11 - ☎ 30 06 99
Dr. Huizi kalea, 4 - ☎ 59 23 07
Faxa 30-00-85
ANDOAIN

Presoekiko elkartasunaren izenean

Euskal preso politikoek Espainia eta Frantziako espetxeetan sakabanatuta gaur egun bizi duten egoera azaldu nahiko nuke, ahalik eta laburren, eta aldi berean antolatuta ditugun ekintzetan parte hartzera gonbidatu.

Jerez, Bonxe, Navalcarnero, A Coruña PSOEek diseinatu eta PNVk txalotutako dispersio politikaren krudeltasunaren adierazle garbiak ditugu.

A Coruñan abenduaren 19az geroztik euskal preso politikoak *txapatuta* daude. 24 orduak zeldan gelditzen dira beren gogoz, bisitetarako eta jateko bakarrik eteten dute itxiera. Aipatu behar bertan Alex Uzkiño Billabonako euskal preso dagoela. Emakumeek bizi dituzten bizi baldintza kaskarrak direla eta, ekin zioten *txapeoari*. Orain arte egin diren gestio ezberdinetan espetxeko zuzendaritzak ez du pasibitatea besterik agertu.

Jerezen ere euskal presoek *txapeoari* ekin diote. Bizi duten isolamendua eta espetxe barruko dispersioa salatu nahi dituzte. Borrokari ekin aurretik presoak saiatu dira espetxeko instantzia ezberdinen bidez egoerari irtenbideen bat bilatzen, baina arduradunek elkarrizketa guztiei muzin egin diete.

Bonxen lo hartu ia ezin dutela hilabeteak daramatzate. Gauetz zenbatzen dituzte katxeo eta guzti eginez. Eta lo dandean argia piztu eta barroteen aurka joz zarata egiten dute. Ekintza horien helburua argia da: euskal presoak fisikoki eta psikikoki suntsitzea.

Navalcarneron bukatu berri dute hilabeteke gose greba zuzendaritzarekin akordioa lortu ondoren.

Horixe duzue dispersioaren ankerkeria. Honi euskal presoek etengabe jasan behar dituzten irainak eta jipoiak gehitu behar zaizkio. Hori guztia dela eta, honako galdera hau egin nahi dugu: "Nola sinetsi behar dugu Ajuria-Eneako Itunaren inguruan biltzen diren alderdi politikoen borondate onean egoeraren eragile eta babesle beraiek izanik?"

Horrenbestez legeak aitortzen duena baino ez dugu eskatzen, alegia, presoak Euskal Herriratzea. Zentzu berean esan Euskal Herriak bizi duen gatazka politikoa egoera bera eragin zituzten motibuak gaindituz baino ez dela konponduko.

Besterik gabe, billabonatar guztiak bai Senideak eta bai Amnistiaren Aldeko Batzordeak antolatu dituen ekintzetan parte har dezazuen gonbidatzen zaituztegu. Apirilaren lehenean zortzi orduko enkartelada egingo dugu Iru-Alde-tan eta apirilaren 8 eta 9an martxa antolatu dugu A Coruñara joateko. Guztiak animatu nahiko nituzke ekitaldietan parte hartzera euskal presoek alkartasuna adierazteaz gain, bizi duten egoera salatzeko.

**Esti Arozena, Billabonako Amnistiaren Aldeko
Batzordearen izenean**

La Salle-Berrozpeko kamarak direla eta

Zenbait komunikabide idatzietan azaldutako artikuloak direla medio, guk, La Salleko ikasleok egon den manipulazioa salatu nahi dugu.

1) Komunikabide hauetan La Salle-Berrozpeko kontrako kanpaina bat izan dela esaten da. Gure helburua ez zen ikastetxe honen aurkako kanpainarik egitea, kamararen ezarpena salatzea baizik.

2) Bestalde, goi mailako ordezkari kanpaina honen aurrean beren harridura azaldu zutela baieztatzen da. Hau ere gezurtatu beharrean gaude, ordezkari guztien artean bi pertsonak adierazi baizuten beren harridura, beste guztiak isilik egon ziren.

3) Honako hau baieztatzen da: "Zenbait ikasle mobilizatu, hezkuntza eta gizarte arlotik at gelditzen diren interesak lortzeko helburua du kanpaina horrek, pertsonak irainduz...". Gezurra dirudi honelako konklusioak atera daitezkeenik guk zabalduko komunikatua irakurtzeko orduan. Komunikatua errespetuz zuzentzen gaitzaizkio pertsona orori, inongo irainik gabe. Bestalde, gure interesak hezkuntza mailan mugitu dira bakarrik, ikasleen eskubideak errespetatu daitezkeen eskatzen baitugu.

4) Azkenik, amaitzeko honako hau garbi uztea gustatuko litzaiguke: Inori ez diogu ezer inposatu. Gaizki iruditzen zaigun gauza baten aurrean (kamararen ezarpena) berorri zuzentzea eskatu dugu, soil-soilik. La Salle harturiko jarrerari orde, okerra dela deritzogu, inposaketaren bidez jokatu duelako. La Salle kontrakomunikatua ateratzeko proposamena azaldu zuenean ordezkari guztien iritzia jasoz eta bozketa baten ondorioz egingo zuela esan zuen, baina **emandako hitza jan egin dute**. Isilean, iritzirik eskat

u gabe, kontrakomunikatua bidali zuten komunikabide ezberdinetara.

Manipulazio hau dela eta La Sallek erreflexio bat egitea gustatuko litzaiguke, bere jarrera adierazpen askatasunaren eraso izan baita eta, era berean ezarritako kamara kentzea eskatzen dugu.

La Salle-Berrozpeko ikasleak

ARGAZKI - ARTE



Nagusia. 8 - Telf. 59 12 56 - ANDOAIN

ARGAZKI ESTUDIOA - JAUNARTZEAK
EZKONTZAK - ERREPORTAIK - MARKOZKETA

Matxismoa = Feminismoa?

Gauza bera al da feminismoa eta matxismoa? Nola daiteke halakorik?

Erotzen hasiak gara, edo zer demontre! Matxismoa emakumearen zapalkuntza mantentzen duen ideologia da. Feminismoa aldiz, emakumearekiko diskriminazioa baztertzen saiatzen den ideologia dugu. Beraz, inolaz ere ezin daiteke esan gauza bera direnik.

Baina, egia da ere horrelakorik entzuten dela. Zer dela eta hori? Gazte askoren artean gorputz hartu duen binomioa da hori. Zalantzarik gabe, informazio eza edo informazio manipulatuaren ondorioak dira horrelako esaldiak. Eta gauzak berhar diren lekuan jartzeko pasa den marxismoaren 8an Begoña Garmendia, Donostiako Herri Batasuneko zinegotzia gonbidatu genuen Zizurkilgo Kultur Etxera feminismoaz hitz egin zezan.

Begoña abertzale eta ezkertiarra izateaz gain, feminista da, eta ikuspegi horretatik azaldu zigun bere feminismoari buruzko iritzia. Feminismoaren lorpenetaz hitz egin zuen Garmendiak eta hain zuzen ere, lorpen horietako bat, beste askoren artean, "emakumearen arazoan sozializazioa" zela aipatu zuen. Ekitaldian parte hartu genuen adin guztietako berrogei emakumeoi gogorarazi zigun gaur egun bizi dugun egoera feministen borrokari esker dela. Feminismoaren erreintzaren fruituak jasotzen hasi garela, baina oraindik zeregin handia dagoela.

Gizaki librez osatutako herri libre baten aldeko borrokaren barnean emakumearen askatasunaren aldeko borroka gehitzea izan da Garmendiaren ustetan eskal feminismoak egin duen aportaziorik garrantzitsuenak. Feminista izateak ba omen du zerikusirik ere norberaren autoestimarekin. Emakumeak bere burua estimatzen ikasi behar du inor baino gutxiago senti ez dadin. Berdintasuna hitza ere, ez du oso gogoko Begoñak: "Zein zeinen berdina izan behar du? Emakumea gizonaren berdina edo alderantziz? Ez nuke nik berdintasun hitza erabiliko, ez. Ezberdinak gara,


nik ez dut gizona bezalakoa izan nahi. Emakumeok badugu gure izateko eran desberdintasunik, hezkuntzatik jasotakoak, eta ez ditugu zertan baztertu beharrik".

Gaur egun emakume berriaren irudi okerra azaltzen digute komunikabideetan, gizonetzkoen balorerik negatiboenak jaso dituen emakumea da hau. Adi egon behar dugu emakumeoi saldu nahi dizkiguten sasiaurrerapen horien aurrean. Ezin ditugu egoerak banakako ikuspegitik aztertu, kolektibo bezala orokorrean, baizik. Emakumeok oraindik ere sexu eraso gogorak jasaten ditugu eta salatu egin behar ditugu, etxeko-lanak banatzea ere ezinbesteko zaigu, bizitza sozialean diskriminaziorik gabe mugitu nahi badugu, gure seme-alaben hezkuntza ez sexista izatea oinarritzkoa da.

Erakunde eta taldeak.

"Emakunde" eta horrelako erakundeetaz galdetu zioten Begoñari, eta bere erantzuna oso kritikoa izan zen. Erakunde hauek arazoak sustraitik hartu beharrean, azaletik heltzen omen dituzte, eta kanpaina puntual eta ikusgarriak eginez ezin daitekeela ezer konpondu esan zuen. Bestalde, gaiaren instituzionalizazioa ekarri omen du eta mugimendua-aren ahultzea areagotu du.

Donostiako Udal hauteskundeetara aurkeztutako den "Plazandreok" emakumez osatutako taldeaz ere itaundu zioten. Garmendiaren ustez, guztiz errespetagarria bada ere, eta eskubide osoz aurkeztzen badira ere, ez da komenigarria egoera honetan indarrak gehiago zatitzea. "Gainera, badakigu zeni egingo dion kalterik handiena, eta ez da PP edo PNVri izango". Bestalde, gizartea emaku-



mez eta gizonetzkoz dago osatuta eta beraz, batera aritu behar dute lanean.

Ekitaldi honetan azpimarratzekoa da emakumeen parte hartze zabala: 40 emakume inguru adin ezberdinetakoak: gazteak, helduak, jubilatutakoak. Hiru mutil gazteren presentzia ere oso txalogarria izan zen. Dena esan behar baita.

Askotan gertatu ohi den bezela, hitzaldiaren ostean irekitzen da eztabaidarik mamitsuena. Eta hori zen helburua, emakumeok dagozkigun gaien inguruan eztabaidatzea. Hori lortu badugu gustora, ondorioak iritsiko baitira. Emakumeona omen da etorkizuna. Egia edo erdiegia, aldaketak eta aurrerapenak nabiak dira, orain garrantzitsua da etorkizun hori gure eskutik etortzea eta ez gizonetzkoek ezarritako baldintzen bidetik. Begoñak esandakoari eutsiz, berdintasunaz hitz egiten digutenean, gogoratu, guk baditugula bazter ezinak diren ezaugarriak gure emakume izaeran, baina ez dezagun ahaztu gizona adina bagarela, eta eska dezagun gizonetzkoek beren pribilegioak utz ditzatela, badute garaia eta.

Arantxa Zabala

Zizurkilgo kultur dinamizatzailea

**FRANCISCO MENDIKUTE
HARATEGIA**



Kale Txiki, 15 - ☎ 59 02 58 - ANDOAIN

Joxe Ramon

Taberna

PINTXO EDERRAK !!

KALE NAGUSIA, 16 - ANDOAIN

KIROLETARAKO BEHAR DEN GUZTIA

**KIROLAK
EDURNE**


KALETXIKI, 6 - ☎ 59 19 58

ANDOAIN

Nor da pertsonaia ezkutua?



Aurreko lehiaketan jasotako harrera onaren ondoren (ehundik gora gutun jaso ditugu erredakzioran), beste honako pertsonaia ezkutua aurkeztuko dizuegu. Oraingo honetan ere bere itxurari "aldaketatxo" batzuk egin dizkiogu, baina hala ere, asmatzeko zailtasun handirik ez duzuela izango ziur gaude.



Lehiaketan parte hartu nahi izanez gero bidal ezazue zuen erantzuna Andoaingo Doktor Huizi kaleko 15. zenbakira. Irabazleen artean zozketa egingo da eta irabazleak **Andoaingo Ernaitza** liburudendak oparitutako "Denboraren gibelean" izeneko Mirentxu Purroyen filmea jasoko du.

LIBURUDENDA
ERNAITZA
PAPERDENDA

Opari, libururu eta bideo egokienak aurkituko dituzu.

ZUMEA KALEA, 2 ☎ 59 24 59 ANDOAIN

38



Jakina, Joxe Migel Iztueta "**Lazkao Txiki**" zen gure aurreko lehiaketako pertsonaia ezkutua. Asko izan dira jaso ditugun gutunak, eta guztiek zeramaten erantzun zuzena. Zozketa ordea, agindu bezela, egin beharra zegoen, eta Billabonako Oihana Aranburu Aierbe izan da irabazlea.

Hamazazpi urte dauzka Oihanak eta Tolosako Orixe institutoan ari da ikasketak egiten. Pozik jaso zuen Oihanak Minikost liburudendako Maxen Zinkunegik emandako hiztegi entziklopedikoa. Oihanak esan digunez, aterramendu ona aterako dio opariari, eta ez berak bakarrik, baita bere familiak ere.

ANTZERKIA

ANDOAIN

Apirilak 8: In Fragantiren "Oleanna" antzezlan La Sallen 20.00etan.

Apirilak 9: Antzekizuna taldeak **"Pinotxo"** eskainiko du La Sallen 18.00etan.

IKUSKIZUNAK

BILLABONA

Apirilak 7: Oskarbi eta Oskarbi Txiki abesbatzek Gurea zinema aretoan eskainiko dute saioa 20.00etan.

BESTE

ANDOAIN

Andoaingo Historiari buruzko ikerketa lanetarako dirulaguntzak. Deialdiaren oinarriak:

1- Historia alorreko ikerketa ohitura sortu eta Andoaingo herriaren historiari buruzko azterketak bultzatzea da deialdiaren helburua.

2- Laguntza jasotzeko aukera izango dute 1.995-96 ikasturtean egin eta Andoaingo komunitatearen gora-behera historikoak ezagutzera edo bere iturri historikoak berreskuratzeke **ikerketa proiektu orijinal eta argitaragabeko** guztiak. Nolanahi ere, egilearen esku dago bai gaia eta bai ikerketagaiaren garaia ere.

3- Eskaerak Andoaingo Udaltxeko Artxibategian **aurkeztu** beharko dira **1.995ko maiatzaren 31ren eguerdiko ordu bata baino lehen**, eta ondoren zerrendatzen den **dokumentazioa** aurkeztu beharko da harekin batera.

- Ikerketa proiektuaren **memoria-laburpena** (gehenez lau orri) eta bertan proiektuaren oinarriko jarraibideak, metodologia, azterketa-untitateak, iturriak eta lana aurkeztuko den hzikuntza.

- **Titulu akademikoa** eta alega ditzakeen gainerako ikerketa eta akademia-merezimenduen egiaztagirak.

- Eskatzailearen lan egoeraren egiaztagiria.

4- **Epaimahai kalifikatzailea**, Udaleko Gobernu Batzordeak onartuko duena, historia jakintzagaiarekin lotutako izen handiko pertsonalitateak osatuko dute, nagusiki.

5- **Dirulaguntza kopurua 150.000 pezetakoa** izango da. Lana **euskaraz** eginez gero, kopuru horri beste **150.000 pezeta** gehituko zaizkio.

6- Euskaraz zein gazteleraz, lanak, behin amaiturik, **Andoaingo Udaletxeko Artxibategian aurkeztu beharko dira 1996ko martxoaren 29ko eguerdiko ordu bata baino lehen.**

Lanaren edukia berauen luzera gutxienez 35 eta gehenez 70 orrialdekoa izan behar duela kontuan harturik, egoki adierazi eta datu base dokumentaletan sartu ahal izateko, lanekin batera hiru hizkuntzetan **-euskaraz, gaztelaniaz, eta EKEko beste hizkuntz ofizial batean-** egindako **laburpena -15 lerrokoa, gehenez-** eta beronen

deskriptoreen zerrenda -4 eta 8 bitartean- aurkeztu beharko dira.

8- Andoaingo Udalak lanak banaka zein batera eta Euskadiko Komunitate Autonomoko bi hizkuntz ofizialeko edozeinetan **argitaratzeko ahalmena** beretzeat gordezten du. Eta lanen lehenengo argitalpenean, funtsean, "Leyçaur" Andoaingo Azterketa Historikoen Aldizkarian egogo delarik, ez du egile eskubiderik ordainduko.

Egonaldiak Familia Euskaldunetan aurtengo plangintza. Familiaren bat programa honetan parte hartzeko prest egongo balitz hona hemen intereseko hainbat informazio.

Plangintzaren helburua euskalduntze prozesuan murgilduta dauden eta euskal giro egokirik aurkitzeko aukera ez duten herritarrei bere ezagupenak praktikan jartzeko aukera eskaintzea da. Plangintza 1995eko uztailetik irailera bitartean gauzatuko da. Familiak gutxienez **lau kidez osatuta** egon behar du, eta kide guztien arteko **ohizko komunikazio hizkuntza euskara** izatea.

ZINEMA

GUREA zinema BILLABONA

"Rio Salvaje"
"Leyendas de pasión"
"Nell"
"La reina Margot"

MIRARI

ILEAPAINDEGIA

ELIZONDO PLAZA, 2
☎ 590162

ANDOAIN

LIBURUDENDA



LIBURU AUKERA
EDERRA PRESTATU
DUGU ZURETZAT

Agustin de Leiza 27 ANDOAIN % 59 16 03

LEITZARAN FINKAK

ETXEBIZITZA ETA
LOKALEN SALEROSKETA
ETA ALKILERRARI
BURUZKO INFORMAZIOA

KALE NAGUSIA, 20 Behea - ☎ 591856 - ANDOAIN

Azelaingo señoritua

Azelain guk ezagutu genuenean palazio edo gaztelu bikaina zen, guretzat iritsiezin edo urrutiko jauregia. Belkoain mendiaren oinean dagoen Sorabilla bailararen muinean zegoen Azelain, zubi clotore baten aurrean. Orain dela 140 urte arte ez zuen hartuemanik Andoainekin izan. Aiztondoko partaide zen Asteasu, Zizurkil, Aduna eta Larraulekin batera.

Don Juan Larreta zen "señoritua", hemengo mendi, baserri eta lurren jabe. Oso aberatsa izan behar zuen eta baita oso kutiziosoa edo kapritxosoa ere. Europan ziren aurrerapenik berrienak eta onenak ikusi eta ekartzen zituen, automobilak nahiz garaiko tresna guztiak. Garaiko munduko korrikalaririk onena, "Denis" belgiarra ere ekarri zuen hemengo txapeldunaren aurka, Etxenagusiaen aurka, korrika egiteko. Lasterketa Zarautz eta Aia tarteko bidean izan zen. Hamazazpi kilometro egin behar zuten korrika aldapan gora. Egun hartan bero ikaragarria egin zuen eta han gelditu zen bide bazterrean hilda Etxenagusia 1922ko maiatzaren 22an.

Andoaingo alkate eta diputatu ere izan zen. Oso handi usteko eta inportantetzat hartzen zuen bere burua. Jendeak aintzakotzat hartu eta "señorito" esanez agurtzea gogoko omen zuen. Gorputzez gizon txikia zen, baina handia ustetan. Eta horrela jan zituen ondasun guztiak eta azkenean behartu hil zen. Goian bego.

Joxe Eizmendi

B
E
R
T
S
O
T
A
N



Asteasuko bertsolari berriak

*Talde koskor bat bideratu zen
AIURRIren izenean,
albiste asko eskuratzeko
Beterriko ingurunean.
Ate batzuek zabaldu dira
burutzen duzun lanean,
etxeetako sukaldetara
sartu zera zuzenean.*

*Zure sorrera ez da gertatu
oztoporikan gabea,
baina balare animatu da
lan egiteko jendea.
Euskera eta bere giroa
izan da zure xedea,
lehen urtea izan dedila
luzarorako bidea.*

Doimua: Pello Joxepe.



AIURRI

BETERRIKO
ALDIZKARIA



M. LARRAMENDI

*Kultur bazkunak
Argitaratzen du*

UDALEN BABES ETA LAGUNTZAREKIN

ANDOAIN




BILLABONA



ZIZURKIL




ASTEASU



LARRAUL



ADUNA



FLEMING IKASTETXEA

Arratzain z.g. ☎ 69 14 13 **VILLABONA** Parkea ☎ 69 35 12

- *Euskalduna*
- *Denona eta*
- *Denontzat*



MATRIKULA:
Martxoaren 29tik
Apirilak 7 arte



Talleres KARRIKA, C.B



- **AUTO KONPONKETA**
- **BERRI NAHIZ
BIGARREN ESKUKO
AUTO SALMENTA**

**AZKEN OPEL TIGRA
BERRIARENTZAKO
OSAGARRIAK**



Ubillos auzoa. 56.Pol. 10. zenb. ☎ 30 02 14 20140 ANDOAIN (Gipuzkoa)